

BERNARDO ATXAGA

euskara araban:
perez de lazarragaren
eskuizkribua, hegoaldeko
euskarazko testu zaharrena

mundua
bam. iran
virginia lekuona & alvaro alcalde

zientzia:
elhuyar sariak
karmele eta montxo lpz. de ipiña

historia & kultura:
antso jakituna fundazioa • avnia kultura elkartea

MARTXOA

MAITASUN SMS-EN LEHIAKETAREN IRABAZLEAK APIRILEKO ALEAN JAKINARAZIKO DIRA

erakusketak & lehiaketak & topaketak

- Jimeno Jurio berrikusten. Historilari euskaldunen III. Topaketak

Martxoaren 5ean eta 6an Iruñean

www.ueu.org / ikastaroak@ueu.org

- "Friso de los estados de ánimo" erakusketa

Gasteizko Arte eta Lanbide eskolaren eskutik

Bertako paraninfoan, martxoaren 18ra bitartera

- Ipuin-erotikoen 9. Lehiaketa

Antolatzailea: Euskarabila-2004 (Basauriko Euskaldunen Elkarte)

Epea: apirilak 23

- Fantasi ipuin laburren XII unibertsitate lehiaketa

Antolatzailea: EHU. Arabako Campuseko Errektoreordetza.

Epea: maiatzak 28



8

EMAKUMEEN EGUNA

Zorionak emakume!

2, 9, 16, 23, 30

PARRAL TABERNA
ekitaldi kulturalak:
kontzertuak,
antzerkia,...

Asteartero, 20.30etan

4, 11, 18, 25

MINTZALAGUNA

GEU elkartearen eskutik

Ostegunero, Falerina
kafetegian (Montehermoso),
19.00etatik aurrera: asmorik
baduzu bertan parte hartzeko
elkartean izena eman ezazu
(945222153, arratsalde.
Josune).

6

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

IKASTARO OSAGARRIAK

Larunbatetan, 11etan,
Amaia Zentroan

Martxoak 6: Igor Elortza
Informazio gehiago:
945010505

5

Geu elkartea & Gauekoak elkarlanean:

AITORMENA: BERNARDO ATXAGA & GARI

MARTXOAK 5. PRINCIPAL ANTZOKIAN. 20.30etan

*ikus 33. orr.

19

35. SAN PRUDENTZIO ARGAZKI LEHIAKETA

Antolatzailea eta inf.: Arabako
Argazki Elkarte (S. FF. A.) Lanak
aurkezteko epea: martxoak 19

21

GEUREKIN MENDIRA

MARTXOAREN 21ean

ENTZIAN, MURUBE (1128 m.)

ARDURADUNA: MAITE (945282316)

IRTEERA: LOVAINA PLAZAN, gozela
9.00etan

6

(ikus. esku-orria)

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA-2004

Final-laurdenak

MARTXOAREN 6an, Kanporaketa

Eskuernagan

MARTXOAREN 13an Kanporaketa Agurainen

Final-erdiak

MARTXOAREN 27an, Finalerdia Aramaion

APIRILAREN 3an, Finalerdia Laudion

FINALA APIRILAREN 25ean, PRINCIPAL
ANTZOKIAN

7

BERTSO SAIOAK

MARTXOAREN 7an, Igandea
19.00etan Aguraingo Herriko
tabernan

MARTXOAREN 12an, Ostirala
20.30etan Aramaioko Anboto
tabernan

MARTXOAREN 18an, Osteguna
22.00etan Garraxi tabernan

MARTXOAREN 20an,

ARABAKO BERTSOLARI

GAZTEAREN GAUA

ALDABE GIZARTE ETXEAN

22.00etan BERTXOKO

KONEXION, Mafia bertsotan

23.00etan BERTSO TRIBIAL

ERRALDOIA

00.00etan BERTSO ZAHARREN

KANTALDI-KARAOKEA

MARTXOAREN 26an, Ostirala-

20:30etan Amurrioko Kili
tabernan

APIRILAREN 15ean

BERTSO SAIOA IPARRALDE

GIZARTE ETXEAN (Aste
Kulturala)

24

HITZALDI SORTA-2004- GEU ALDIZKARIA & GEU ELKARTEA & NABARRALDE

(ikus. kontrazala)

TOKIA: MONTEHERMOS

O KULTURUNEA:

AMBIGU ARETOan

ORDUA: 20.00etan

GAIA: NABARRALDEren
aurkezpena, ERLANTZ
URTASUN historiagilearen
eskutik (Kultura, ezagupena,
jakintza eta komunikazioa.
Euskal Herria, kontzeptu
kulturala; Nafarroa, Euskal
Estatua)

30

KULTUR ERROTA & GEU

Biraka dabilen harria,
sorkuntzan ari den herria

Kontzertua: "MORAU
TA AGOTAK". Andoni
Tolosa 'Morau' eta bere
taldearen TXUKALDA
azken lanaren zuzeneko
aurkezpena. 20.30etatik
aurrera PARRALEn

31

IRAKURLE KLUBA

HIKAATENEO-N

ARRATSALDEKO
20.00ETAN

Martxoaren 31a,
asteazkena

Isaac Bashevis Singer,
Zortzi kontakizun,
Elkar-Alberdania 2002

aurrerago...

EUSKAL JOKO
TOPAKETAK XIBAREN
eskutik (Ikastolen
Elkartea)

non: araban, gipuzkoan,
bizkaian, nafarroan,
iparraldean

noiz egingo da araban?
maiatzaren 22an, foru plazan

nori zuzendua: herrikoia da.

16 urtetik gorakoentzat

antolatzailea: Ikastolen

Elkartea, Xibaren bidez (Xiba

Ikastolen Elkarte adar berri

bat da, euskal kirol joko eta

jolasak jorratuko dituen

hemendik aurrera, bai

hezkuntzan baita era

herrikoian ere)

informazioa: 945276376

KORRIKA 14an kokatuko den II. KORRIKA-AEK BEKARAKO DEIALDIA

-helburua: gizarte-onura bilatzen duten ekimenetan inbertitzeko
modua izateaz gain, euskarazko arte eszenikoak bultzatu, euskal
sortzaile berriei bidea egin, eta Korrika Kulturean zein bestelako kultur
ekimenetan jende aurrean aurkez daitezkeen lanak sortzen laguntzea
xede duen ekimena da.

-Korrika 14rekin uztartuko den, hots, Korrika 14ren Korrika
Kulturalaren ardatza izango den ekitaldi nagusia lortzera datorren II.

KORRIKA-AEK Beka eskuratzeko deialdia publiko egiten du AEK-k.
Bekaren oinarriak AEKren web orriaren bitartez (www.aeknet.net) eskuratu
daitezke, AEKren euskaltegietan zein AEK-k Baionan, Bilbon, Donostian,
Iruñan eta Gasteizen dituen bulegoetan.

-Epea: Proiektuak 2004ko maiatzaren 3a eta 7a bitartean aurkeztu
behar dira AEK-ko hiriburueto edozein egoitzatan.

informazio gehiago: 94 415 95 12/639 36 52 35



ahorik aho:

BERNARDO ATXAGA

7-10.
orr.

BAM. IRAN:

virginia lekuona & alvaro
alcalde gasteiztarren eskutik



11-13.
orr.

ZIENTZIA. Elhuyar sariak:

"Replikantearen Jazz Arima"

karmele eta montxo lpz. de ipiña



14-16.
orr.

euskaltasunean lagun:

FERNANDO VELEZ de MENDIZABAL

23.
orr.

gaika: Historia&Kultura



17-19.
orr.

ANTSO JAKITUNA
FUNDAZIOA. 40 urte



20-21.
orr.

AVNIA KULTUR
ELKARTEA



GAINERA...

HAN-HEMENKA (4-6. orr.):

- iritziak (4-5)
askapena / eguzki-garoña
- kaleak dio (6)
tabernak 1.30etan ixteko agindua
- araba bixotzian (6)
JON ZUBIAUR irudigilearen eskutik

KULTURAISIALDIARI SO (2 / 24-35. orr.):

- agenda (2)
- idazleen gupila (24-25)
depende IV. PATXI ZUBIZARRETA
- historia zertzeladak (26-27)
Euskara Araban. 'Perez de Lazarragaren eskuizkribua'.
Hegoaldeko euskarazko testu zaharrena
- arte txokoa (28-29)
idazle gazteak: maialen monte, kepa blazquez
- bidaia (30)
MEXIKO II. Xabier Errasti
- errezeta (31)
- BERTAKOARI SO! (31)
ERLANTZ URTASUN historiagilearen txokoa
"Gasteizko nafarren lege zaharraz"
- geu-ren eskaintza: (33-34)
AITORMENA. Bernardo Atxaga & Gari. Martxoak 5
- komikia (35)
IÑIGO SARASOLA

Azala ...



azaleko argazkia: edorta sanz

>GEU

GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)

Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua


Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz

Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria:	estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkari batzordea:	josune veleiz de mendizabal, edorta sanz, edume begiristain, estitxu breñas eta david alvez
Kazetariak:	edume begiristain, josune veleiz de mendizabal, saioa fdz. de arangiz
Argazkiak:	edorta sanz
Bestelako irudiak-bilaketa:	estitxu breñas glz. de zarate
Testuen zuzenketa-orraketa:	osaketak: estitxu breñas glz. de zarate
Itzulpenak:	edume begiristain, estitxu breñas, aztiri
Maketa:	patirke sanz eta david alvez
logoa:	io grafix
komikia:	iñigo sarasola
Kolaboratzaileak ale honetan:	askapena, eguzki, maite lekue, jon zubiaur, patxi zubizarreta, berria, xabier errasti, erlantz urtasun eta gamarrako ostalaritza eskola.
Publizitatea eta Banaketa:	edume begiristain
Publizitate arloko laguntzaileak:	maite lekue
Sustapen-harpidetza saila:	edume begiristain, estitxu breñas glz. de zarate
Inprimategia:	Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua:	2.500
	LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago. Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



"Ikusten dut irakurleek merezi dituzten liburuak idazten direla, idazle onak daudela, gazteak gero eta jantziagoak eta hobeto ari direla, irakurleaz ere ezin kontraktorik esan... Nire liburua atera eta gero konturatu naiz zenbat irakurle dagoen. Eta ez da bakarrik jendea liburuaren zain zegoela, baizik eta irakurri zain zegoela. Harrigarria ere bada zenbat gutun bidali dizkidaten. Horregatik, ez da iraganari buruz hitz egiteko mementoa, baizik eta aurrera begiratzekoa, ea nondik mamitu, indartu eta gauzatu daitekeen gauza. Oso baikorra naiz alde horretan" (Bernardo Atxaga. 2004-otsaila)



PLASTIKO BELTZEZKO ZUBI ERRUGABEAK

Munduko gizarte foroko partehartzaileen %10 Mumbaira joan ziren batezbeste 1.000 euro balio duen hegazkin txartela erosita. Soilik garraioan 10 milioi euro erre ditugu, bost egunetan globalizazioaz eztabaidatu eta motibatzen. Garesti samarra da katarsi kolektibo hau, futbol partida herrikoia hau, non pilota besteen Miseria den eta zelai-jokoa azalera handiko merkatal gune iragankor handi bat, dena 100ean delakoaren ideologien kontsumorako, edota globalizazioaren kontrako kritiken Erakustaldi Azoka EXPO Mumbai 2004 handi bat.

10 milioi euro bidaiatzeko eta eztabaidatzeko, eta ahal dugun neurrian geure sentsibilitateak elkarri ez zauritzea ekidituz. Elkarrekin egon behar dugu. Hori dela eta, Foroetan garapenen proiektuetarako diru-laguntzak eskatzen dituzten asko egon ohi dira, bakarrik dauden emakumeentzako edota baratza ekologikoenentzako mikrokreditoak ezarri nahi dituztenak, bidezko merkataritzako denda kateak jarri nahi dituztenak, HIESa sendatzeko yoga praktikatzen dutenak edota Munduko Bakea lortzeko meditazio transzendental egiten dutenak, ... horrek guztiak ez dio inori kalte egiten. Erradikal eta kontzienteenok urtemuga bat aprobetxatu dugu gizarte zibilar martxoaren 20ko manifestaziorako deialdia luzatzeko eta Palestinako bakearen aldeko eta Irakeko okupazioaren kontrako "Peace-Caravan" bat antolatzeke Bagdagera.

Baina, zenbat bala eta kilo lehergailu erosi ahal izango luke Irakeko erresistentziak 10 milioi euroekin?

Oraindik gehiegitxo daude garai hegaz egiten dutenak, lapurtutako petrolio irakiarrak bultzatutako hegazkin handiak erabiliz (British-ekoak, esaterako). Garai hegaz egiten dute, ongiaren eta gaizkiaren gainetik, zeruko altuera horietatik axolagabe bonbardatuz, euren giza eskubide eta demokraziekin. Beste batzuek, altuera berberetatik, israeldar eta palestinarren arteko besarkada baketsuak harropuzkeriaz bultzatu nahi dituzte (ongi garbituta daudenak eta errugabeak direnak aukeratuz, haiekin eskuak ez zikintzeko).

Irakeko erresistentziarekiko, Palestinako intifadarekiko eta beste hainbesterekiko konpromiso internazionalista eta solidarioaren gabeziarako zurigarria beti berbera da: "Gizarte zibila, israeldarra, gringoa, europarra, euskalduna, ... errugabea da". Behin eta berriz errepikatzen dugu errugabeak garela. Baina norbait oraindik hain inozoa izan daiteke pentsatzeko-sinesteko botereak baimenduko duela bere menpeko zibil bat errugabe izatea? Akaso, egungo abagunean, elkartasuna errugabe izan al daiteke?

Elkartasun internazionalista Munduko (eta Europako) edozein tokitan bere askatasunaren alde borrokatzen duen zapalduarekiko elkartasun argia eta zehatza da. Boteretsuaren konplize bilakatuko gara negoziazioak bultzatzen baditugu bietako batek negoziatzeko tresnarik ez duenean, edota zubien eraikuntzan bitartekari lanak egiten baditugu eta bi aldeetako batek zubia iragan eta bestea inbaditu eta suntsitzeko boterea duenean. Zubi bat ibaiertz batetik edo bietatik alde berean eraikitzen da, baina sekula ez ibaiertzen urruntasunetik, sekula ez amildegiaren erdian eskegita, sekula ez "gizarte zibil errugabea" bezalako argudio faltsuaren hutsunean eskegita.

Oraindik gutxi batzuk gara -gero eta gehiago, hala ere- foroetan elkar ezagutu eta eztabaidatzeaz gain, munduko herri guztien artean enpresa-buruen, bankarien eta inperialismo globalizatzailearen politikarien kontrako borroka antolatzea eta koordinatzea aldarrikatzen dugunok. Ondorioetara heltzeko elkarrekin lan egiteko eskatzen dugu, politikoki eta ekonomikoki zapal dutako herrien autodeterminazio eskubidea errealtate bilaka dadin gatazka gehienek itenbide gisa, Heriotzara eramaten gaituen garapen eredu hori gelditzeko. Eta gero eta jende gehiagok uste du justizia eta bakearen alde eraginkor lan egiteko eskuak bizkarreraino zikindu behar direla, elkarrekin, inkoherentzia, kontraesan, hautsa, izerdiarekin eta, ... duintasunarekin.

Walter Wendelin
ASKAPENako militantea



GAROÑA: HAMAICA MATXURA DITUEN ZENTRALA

Garoñako zentral nuklearra Arabatik 4 km eskasera dago. "Lehenengo belaunaldikoa" da, eta 60. hamarkadako teknologia dauka (Harrisburg edo Chernobylen matxurak antzeman baino lehenagokoa), eta ez da batere fidagarria, horregatik ezagutzen da hamaika matxura duen zentral gisa.

Garoñako zentral nuklearra 1971n konektatu zuten sarera, eta 2009. urte bitarteko luzapena dauka, nahiz eta bere iraupena 25 urterako aurreikusita egon. Beraz, 1995etik itxita beharko luke. Hori dela eta, arazo franko ditu: materialen higadura sortzen duten pikordunen arteko korrosioak arrailak sortu ditu erreaktorearen barrualdean 1994az geroztik. Zentralaren egitura-arazoak konpondu gabe daude, baina jada ez dute konponbiderik. Alemaniako aditu independente batzuen arabera, antzemandako arrailek "erradioaktibitate isurketak eragingo lukeen istripu larria sor dezakete"; beraz, zentrala berehala gelditzea gomendatu dute.

30 urte hauek ez dira samurrak izan, gainera. Isotopo erradioaktiboak daude (Cesio-137 eta Cobalto-60) hondakinetan, ur-landareetan eta Ebroko arrainetan. Horrek erakusten du hainbatetan ezkutatu nahi izan dena, hots, kutsatutako milaka ur litrok ihes egin dutela (400.000 litro ur, datu ofizialen arabera) Arabako, Errioxako eta Nafarroako Erribera Garaiko zonalde zabalak kaltetuz. Gas isurketei dagokienez ere, egoera ez da batere ona: zentrala martxan jarri zenez geroztik gaurdaino, legez onartutako isurpen mugak 600etik 10 mila kurioetara gutxitu dira, baina hala ere, maiz muga hori ere gainditu egin da.

Eguzki-k osasun zerbitzuetako datu estatistikoetan oinarrituta egindako lan batek zera islatzen zuen: Garoñatik eta Ebro ibaitik gertu dauden Arabako eskualdeetan minbiziaren eraginez zegoen heriotza kopurua EAEko batezbestekoa baino handiagoa zela, maiz EAEko heriotza-tasa baino %5 altuagoa. Heriotza-

-tasa horren eragilea Garoñako zentrala izan zela berresten duten datuak badira: demostratuta dago Alemaniako Krummel zentrala izan zela haurren leuzemia kasuen gorakada itzelaren eragilea. Garoñako zentrala ez da onartu daitekeen arrisku bat, egunero geure bizitza arriskuan jartzen duen zerbait baizik.

Garoñako arazoa, egun, alor teknikitik edota energia hornikuntzaren inguruko eztabaidatik baino haratago doa, demokraziaren arazo bat baita. Ekologistok ez ezik, gizarte eragile eta sindikatu gehienek ere zentralaren itxiera eskatu dute, bai eta mota guztietako erakundeek ere: Nafarroako Parlamentuak aho batez eskatu zuen zentralaren itxiera 25. urtemugan, baita Errioxakoak eta Aragoiko Gorteek ere.

Arabako erakundeek maiz eskatu dute zentralaren itxiera. Hala, Gasteizko Udalak lautan eskatu du bere itxiera, lehenetarikoa 1987ko maiatzaren 15ean. Gauza bera egin dute Arabako herri gehienek, besteak beste, Laudiok, Amurriok, Agurainek eta Bastidak.

Arabako Biltzar Nagusiek, Garoñako zentralak arabarren artean sortzen duen kezkaz jabetuta, zentralaren egoera aztertzeke batzorde bat eratu zuten. Ateratako ondorioak oraindik ez daude martxan. Izan ere, azken lau urteotan Biltzar Nagusiek hiru biderrez eskatu dute zentralaren itxiera. Hiritarren nahia oraindik ez da kontuan hartu, ordea.

Hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia da. Hiritarren gehiengoaren nahia praktikara eramateko urrats eraginkorrak eman behar dira, adierazpen soilek kaleitsu batera baino ez garamatzatelako.

Horregatik dei egiten dizugu Araba Garoñarik gabe ekimenarekin bat egiteko.

**Guztion ahaleginarekin
Garoña ixtea lortuko dugu!**

Gasteizko Udalak arau berria jarri du abian asteburuetan tabernak 1.30etan ixteko. Erabaki honek alde zaharreko tabernak kaltetzen ditu batik bat, eta hein handi batean ere bertatik ibiltzen den jendea.

Azkenaldian jendearen ahotan dago gai hau, eta horrexegatik alde zaharreko kaleetan barna murgildu gara bertakoek zer iritzi duten plazaratzeko. Hona hemen jasotakoa:



Dorleta Martinez de Aramaiona, kazetaria eta tabernaria

1. Oso gaizki iruditzen zait, jendeak ondo pasatzeko eskubidea duelako. Gainera San Prudentzio eta Dato kaleko tabernekin ez dira hain zorrotzak.
2. Taberna langilea naizen neurrian eragiten dit, lanpostuak murriztuko direlako.
3. Elkarrizketa.

Juani Lopez, langilea



1. Nahiko gaizki, 1.30ak oso ordu goiztiarra da tabernak ixten hasteko.
2. Irteten naizenean eragingo dit, giroz aldatu behar dudanean hain zuzen. Alde zaharreko auzokidea naizenez kalean egongo den zaratak kalte egingo dit, zalantzarik gabe.
3. Ostalariek elkartu beharra daukate aldarrikapenak eta protestak komunean egiteko.

TABERNAK 1.30etan IXTEKO AGINDUA

- 1.- Udalak abian jarri du tabernak 1.30etan ixteko agindua. Zer iruditzen zaizu? Zergatik?
- 2.- Nola eragiten dizu erabaki honek?
- 3.- Honen aurrean...

Blanca Guzman, artisaua



1. Ez zait batere zuzena iruditzen Udalaren erabaki hau. Tabernek ordu hauetan zabalik egon beharko lukete giro ordua baita.
2. Ni Alde Zaharrean bizi naiz eta betidanik hemen izan dira tabernak. Zaratek ez dute tabernen itxiera orduarekin zerikusirik, jendea kalean geratzen denean sortzen da iskanbila. Tabernak hosgabeturik badaude kalean baino zarata gutxiago sortzen du jendeak taberna barruan.
3. Hiri honetan gutxi egin daiteke arau honen aurka joateko.

Aitor Gonzalez, txoferra




1. Niri berdin zait ez naizelako parrandan irteten; irteten den jendearentzat aldiz, txarto.
2. Niri ez dit eragiten.
3. Gasteizen dagoen Udalarekin ezin daiteke ezer egin.

Araba bixotzian



BERNARDO ATXAGA:

“Ez da iraganari buruz hitz egiteko mementoa, baizik eta aurrera begiratzekoa”



Oihartzun handia jaso du Bernardo Atxagaren azken liburuak, “Soinujolearen semea”-k. Pozik eta harrituta irakurleek helarazi dizkioten kritikengatik, Atxagaren lana ez da oraindik eten. Itzulpena prestatzen diharduen bitartean, eta behin nobela idatzi ondorengo zamaz askeago dagoela, **Gasteizen ere izango da hilaren 5ean, Geu Elkartea eta Gauekoak-en laguntzaz, Principal antzokian aurkeztuko duen “Aitormena” emanaldian.**

Bernardo Atxaga edo Joseba Irazu, nola nahiago?

Jarraituko dut oraingoz Bernardo izaten, ez baitut lana bukatu. Lana bukatzean erabakiko dut. Udazkenean aterako da “Soinujolearen semea” nobelaren itzulpena gazteleraz eta katalanez eta bitarte horretan ez dago aldaketarik egiterik.

Beraz, Joseba etxean eta Bernardo izaten jarraituko duzu zure lanari dagokionez.

Bai. Ezizena erabiltzen hasi nintzenetik, 25 urte geroago aldaketa handiak izan dira Euskal Herrian, gaurkoan eta gu hasi ginen horretan, alegia. Badirudi ezizena hobeto dagokiola orduko giroari, orduko lan egiteko moduari. Isilik jardun beharra zegoen. Artikulu bat euskaraz ateratzea besterik gabe arriskua zen, beraz, beste modu batera sinatu, beste gizarteratzeko modu bat bilatu beharra zegoen. Orain gauzak horrela ez egon arren, oraingoz behintzat, nahi ala ez jarraitu beharko dut Atxaga ezizenarekin.

Alabaina, “Soinujolearen semea” izeneko zure azken

lanarekin Atxaga pertsonaiari amaiera emango diozula aipatu duzu.

Amaiera batez ere Obabako mundu horri. Obaba izan da niretzat geografia bat, baita hori baino gehiago ere, oroimenaren gune bat. Iragan guztia kokatu dut Obaban edo Obabaren ertzean... Nik ez ditut zikloak egiten, baina aldi bat bukatu dela pentsatzen dut eta hortaz, etorkizunean beste hitz batzuk, beste mundu bat bilatu behar dudala pentsatzen dut. Nobela honetan kabitu izan ez diren testuak kaleratuko ditut neguan eta orduan Obabarekin bukatu dut.

Liberazio handia izan da zuretzat zazpi urteko lana azkenik bukatzea eta kaleratzea. Ondorioz, “etorkizunean bizitza berri bat egongo da” azpimarratu izan duzu. Ze aldaketa motaz ari zara?

Desira bat da. Zalantzarik gabe “Soinujolearen semea” niretzat ez da izan liburu arrunta. Hainbeste urte lanean egon eta gero nire ahal guztiak eman ditut eta pentsatzen dut oraindik ezin naizela hortik aurrera joan. Bakarrik lan

orduak eta urduritasuna kontuan hartuta, azken urtea latza izan zen. Adibidez, bukaera lan bat gustuko ez duzunean, aldatzea ez da erraza eta hor borroka sortzen da. Pentsa ezazu zuzenketarekin bakarrik bi hilabete bete direla eta lau lagun ibili garela horretan. Zenbait mementotan pentsatzen nuen ez nintzela gai izango horrelako lan bat bukatu ahal izateko. Bukatzeak arindu handia eman dit eta oso lasai geratu naiz.

Bernardo Atxagaren literaturan ezohikoa den sentimendua da agerian nobela honetan, maitasuna, alegia.

Esana dut pintoreentzat erretratuak egitea oso-oso zaila dela. Hau da, musika talde batek bere benetako soinu berezia daukala erakusteko bertsioak egitea da errazena, zenbat eta ezagunagoak izan bertsionaturiko kantak hobeto. Maitasun istorioekin gauza bera gertatzen da, gai estandarrak dira eta hor ona izateko komeni da ondo prestatzea. Oraingo honetan ahal nuen egin. Gutxienez hiru istorio ezberdin daude. Garaia heldu da.

Zure literaturan umorea gehiago lantzea ere nahiko zenuke. Zergatik?

Umorea nik erabiltzen dudana bezala aldaratearen sinonimoa da. Beti azpimarratu nahi izan dut, eta ez naiz ni esaten duen lehena, Gomez de Sernak ere oso ondo esan zuen, umorismoa eta umorea ez dira gauza bera. Umorismoa gehiegikeria da, esango nuke umorearen alderdi mekanikoa. Historian barrena umorea bortxaketa baten modukoa izan da, dena irrigarri egitea, alegia. Caro Barojak esaten zuen Julio Cambari buruz nonbait paseo bat eman zutela Bidasoatik; udaberria zen eta paisaia izugarri polita zen, Cambak bere umorea egiten jarraitu zuen eta Baroja bere liburuan kezu zen... paisaia horrek ez al zion eragin? Errealitatearekiko distantzia, gauzak urruti samar ikustea da umorea. Urruntasun horrekin agian irribarre batekin idatzi daiteke.

Euskal literaturaz gainontzeko idazleei galdetu eta Atxaga dute eredu. Bernardo Atxagari aldiz galdetuta, zer dio berak euskal literaturaz?

Nik uste begiratu beharra dagoela banan-banan, egilez egile eta liburuz liburu. Duela 10 urte baino baikorrago azaltzen naiz egun gai honen inguruan. Lehen larritasun bat zegoela iruditzen zitzaidan, ez bakarrik idazlerik ez zegoelako, hau literaturaren munduan dagoen hanketako bat besterik ez da, baizik eta kritikoak, irakurleak eta dinamizatzaile kulturalak ere ez zeudelako. Azken figura honek batez ere irakurle zein idazle bati izugarri laguntzen dio. Badakizu zein etsigarria den urteak joan eta urteak etorri eta beti gai bereko hitzaldiak antolatzea? Horrek giroa zapuztu egiten

du. Idazleari eta irakurleari ezin zaio beti joan euskara salbatuko den kontu horrekin. Lehen erakundea ez nuen indartsu ikusten eta gaur egun aldiz, zalantza barik esango nuke indartsu ikusten dudala. Ikusten dut irakurleek merezi dituzten liburuak idazten direla, idazle onak daudela, gazteak gero eta jantziagoak eta hobeto ari direla, irakurleaz ere ezin kontrarik esan... Nire liburua atera eta gero konturatu naiz zenbat irakurle dagoen. Eta ez da bakarrik jendea liburuaren zain zegoela, baizik eta irakurri zain zegoela. Harrigarria ere bada zenbat gutun bidali dizkidaten. Horregatik, ez da iraganari buruz hitz egiteko mementoa, baizik eta aurrera begiratzekoa, ea nondik mamitu, indartu eta gauzatu daitekeen gauza. Oso baikorra naiz alde horretan.

25 urte idazten daramatzazula eta, Jon Aranok idatziriko artikulua batean Nobel Sarirako proposatzen zintuen. Nola ikusten duzu?


Aurrena, esker handiak eman behar dizkiot Jon Aranori. Berak



batez ere liburua zenbat gustatu zitzaion adierazi nahi izan zuelako artikulua horrekin, eta nik horri eusten diot. Bestetik, idazten dio lehengo erakundeari, zeina orain lehen baino askoz ere indartsuago dagoen. Duela 25 urteko galdera ohikoena zen: ba al da euskal literaturarik? Orain berriz, idazle gazteak egiten duen galdera honako hau da: zergatik ez eskatu Nobel Saria honentzat? (barre egiten du). Iruditzen zait alde izugarria dela. Hortaz, aurrera nik zer nahi duzu esatea, ez dakit nola azaldu baina... sarietan ez dut asko pentsatzen.

Itzulpenarekin bukatzeaz gain, zeintzuk dira dituzun hurrengo egitasmoak?


Itzulpenaren lana askoz ere errazagoa izaten ari da, konparatzerik ez dago liburua idaztearekin. Irailean itzulita izango dut, eta nahiz eta hasieran lehenago kaleratze pentsatu nuen, nekea dela eta, erritmo mantoagoan ekin diot itzulpenari. Horrela hobeto egiten dira lan mota hauek. Ondorengo testu laburren liburu bat izango da. Zortzi edo hamar istorioz osaturiko liburu honetan izango dira nobelan erritmo arazo huts batengatik edo, kabitut izan ez diren zatiak. Udazkenean, berriz, Armendariz zinegileak Obaba izeneko pelikularen grabazioari ekingo dio eta horrekin ere ibili gara.



BIOGRAFIA & BIBLIOGRAFIA

Bernardo Atxaga ezizenaren jabe den Joseba Irazu Garmendia Asteasun (Gipuzkoan) jaio zen 1951. urtean. Ekonomia ikasketak Bilbon eta Filosofiakoak Bartzelonan egin zituen. Bere hastapen literarioak "Euskal literatura 72" antologian argitaratu zituen 1972an. Ordutik lan ugari egin ditu idazleak, hauek ezagunenak artean:

- Ziutateaz (Lur, 1976)
- Etiopia (Pott liburutegia, 1978)
- Henry Bengoa, Inventarium (Elkar, 1986)
- Obabakoak (Erein, 1989)
- Gizona bere bakardadean (Pamiela, 1993)
- Zeru horiek (Erein, 1995)
- Saja izeneko gizona (Pamiela, 1996)
- Groenlandiako lekzioak (Erein, 1998)
- Hitz beste eginez (Pamiela, 2000)
- Soinujolearen semea (Pamiela, 2003)



bernardo atxaga

GAUEKOAK&GEU ELKARTEAren eskutik

PRINCIPAL ANTZOKIAN, MARTXOAREN 5ean

BERNARDO ATXAGA

"AITORMENA"

Eskaintza berezia bazkide eta harpidedunei (33. orr.)

Bernardo Atxaga ikusteko parada izango da hilaen 5ean, ostirala, Gasteizko Principal antzokian. "Aitormena" izeneko emanaldia prestatu du Asteasukoak Jose Goikoetxea "Goiko", Nando de la Casa eta Gari abeslariarekin batera. Goiko eta Atxagak irakurle jardungo dute, Nando eta Gari musikarekin nagusiki arituko direla.

-Zergatik eta nola prestatu duzue espresuki Gasteizen egingo duzuen emanaldi hau?

Hemen kultur antolatzaile onak daude eta kasu honetan Imanol Pradellsek nik irakurraldi bat egin nezan proposatu zidan. Pentsatu nuen aurreneko gauza Charles Baudelaire-en "Arrotza" izeneko poemari izan zen, eta ez dakit zergatik bertan idatzitakoak Gari aurreko egunetan elkarriketaren batean esan zuen zerbaitekin lotzera

"AITORMENA"
Bernardo Atxaga

+ lankidetzaz bereziak/
colaboraciones especiales

Martxoak 5 ostirala
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA
20:30

Prezioa: 12/9/6 euro
50%eko beherapena 30 urtetik beherakoentzat

IZENEMATE BIDEZKO IKASTAROA / TALLERES CON INSCRIPCIÓN 22:00-0:00



eraman ninduen. Goikok, berriz, nirekin egin ditu hainbat saio,

baita Nandok ere. Hortik sortu zen ideia.

Aitormena izena Hertzainak-en kanta gogoan nuela jarri nion.

-Musika eta literatura uztartuta egongo al dira emanaldi horretan?

Nik ez nuke horrela esango... elkarren ondoan egongo dira eta testua batez ere izango da nagusi. Ez dauka zerikusirik antzerkia edo kontzertuekin, irakurketa soila izango da. Hori da nahi dudana izatea, arroza arroza den bezala. Ez zaizkit asko gustatzen efektu espezialak, hori da nire ustez zaporea disimulatzeko haragi txarrari ziapeta botatzea bezala. Azpimarratu nahiko nuke hitza izango dela nagusi eta testuak jarri behar duela indarra, trapezistari gabe.

IRYSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak


ITYRRIETA

Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHAR
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK



VIRGINIA LEKUONA eta ALVARO ALCALDE, BAMen EGONDAKO AZKEN EUSKALDUNAK

- Noiz eta zergatik erabaki zenuten Iranera bidaiatzea?

Alvaro- Abenduaren 22an joan ginen. Cuk oso gustuko dugu bidaiatzea, eta Iranen historiak, mundu pertsiarren historiak erakartzen gintuen... laz ere saiatu ginen joaten, baina ezin izan genuen. Oraingo honetan paper guztiak lehenago mugitu genituen, eta joatea lortu genuen.

15 egun egon ginen, gabonetan.

Virginia- Lankide bat bertan bizi da, eta Teheranen duen etxea utzi zigun.

- Zer ikusi zenuten, zein hiri bisitatu zenituzten?

Alvaro- Hegazkina hartu genuen, eta bertan gure kabuz mugitu ginen. Teheranetik Kermanera joateko asmoa

Munduan zehar bidaiatzea maite duen bikotea osatzen dute Virginia Lekuona eta Alvaro Alcalde gasteiztarrek: India, Vietnam, Laos, Thailandia, Indonesia, Jamaika, Kuba, AEB, Afrika... ezagutzen dituzte. Egindako azken bidaiak, ordea, ezin izango dute sekula ahaztuko. Izan ere, Iranen egon ziren iazko abenduan, eta Bam-en gertatutako lurrikara gertu-gertutik bizi izan zuten. Azken orduko plan aldaketa batek lurrikaratik onik irtetea ahalbidetu zien, eta oraindik ezin dute esperientzia hura burutik kendu.

genuen, hortik hegoaldean dagoen Bam hirira, eta handik gora herrialdea zeharkatuz Teheranera joateko. Joan baino lehenago ibilbidea idatzita utzi genuen, plan antzeko bat egin genuen, 15 egun baino ez genituelako herrialdea ezagutzeko. Gure asmoa zen abenduaren 25eko gaua Bamen pasatzea, baina Kermaneko aireportuan geundela



IRAN

Biztanleak: 65,6 milioi.

Hiriburua: Teheran.

Hizkuntzak: persiera (ofiziala, %58), eta beste hainbat (azeriera, kurduera, turkiera, balutxe, arabiera, armeniera...).

Dirua: rial.

Irango ipar-mendebaldeko Kurdistango parte da.

Kaliforniako bikote batekin topo egin, eta haiekin bidaiaaren planaz mintzatzen ari ginenean planak aldatzea proposatu ziguten. Gau hori Bamen pasa beharrean, planak aldatu genituen eta horrek lurrikaratik salbatu gintuen.

- Orduan, nola bizi izan zenuten lurrikara egun hori? Zer edo zer nabaritu al zenuten Kermanen?

Alvaro- Bai, bezperan lurrikara txiki bat egon zen, goizaldeko 3retan, baina oso txikia. Nik apenas nabaritu nuen. Inork ez zuen pentsatu hura etorriko zenaren abisua izan zitekeenik. Gau horretan, Kermanen ginela, Bametik 150 kilometrora, lurrikara nabaritu genuen....

- Beldurra pasatu al zenuten?

Alvaro- Beldurra baino gehiago, ahultasun sentsazio bat da, gerta daitekeenaren zain zaude... Ni ohera helduta egon nintzen, eta Virginiari esan nion ateen azpialdera joateko, leku seguruagoa baita.

- Noiz jabetu zineten lurrikararen garrantziaz, eta hildako kopuruaz?

Virginia- Goizean gosaltzera joan ginenean, jendeak zer edo zer komentatzen ziharduen, baina garrantzi gutxi ematen zioten oraindik. Komunikazioa ere moztuta zegoen...

Alvaro- 500 hildako zeudela zioten, Gotorlekua suntsituta zegoela, zurrumurruak ziren... ...egun hori bidaiatzen eman genuen, eta apurka-apurka hildakoak askoz gehiago zirela jakin genuen. Gauez, gertatutakoa oso larria zela telebistan ikustean lur jota geratu ginen.

- Gertatutakoaren larritasunaz ohartu zinetenean, zer sentitu zenuten?

Virginia- Lehenik eta behin, atzean utzitako jende guztiaz gogoratu ginen. Bamen egondako hotelean jende asko ezagutu genuen: korear bat, munduari itzulua bizikletaz ematen ari zitzaion beste bat,... bidaia guztian haiengan pentsatzen aritu ginen.

Alvaro- Denborarekin jakin genuen bat hil egin zela, Bamen bi egun gehiago geratu zelako. Planak aldatzera animatu gintuen Kaliforniako mutila ere hil egin zen...

- Lurrikararen ostean zer egin zenuten? Laguntza eman al zenuten?

Alvaro- Lehenengo egunetik laguntza jasotzeko postuak jarri ziren, odola emateko, dirua... guk ere zerbait eman genuen. Jendeak ederki erantzun zuen. Ondoren, bidaiatzeari ekin genion berriro ere, baina ez ginen bidaiaz berdin gozatu.

- Bamen laguntza behar dute oraindik. Ba al dago modurik laguntzarik emateko?

Bai, bi hilabete inguru pasa da lurrikara gertatu zenez geroztik, eta Bam apenas agertzen da komunikabideetan. Intermon bezalako GKEren bitartez Visarekin on-line dirua eman daiteke, hauxe linka: <http://www.intermon.es/>

Gurutze Gorriak ere laguntzeko aukera ematen du, SMS bat 7200 zenbakira bidaliz, IRAN hitza jarritz.

- Bestelakoan, nolakoa da Irango jendea?

Virginia- Jendea oso ikusbera da. Zer egiten duzun begiratzen dute, zer daramazun, kanpotarren edozein xehetasun asko interesatzen zaie...



Erregimenarekin ados dagoen jendea badago, baina oro har jendea oso erreta dago, debeku asko daudelako. Mendebaldeko musika, abestea, dantzatzea, alkohola... debekatuta daude. Kontraesan handiak daude; esaterako, emakumeak erabat estalita doaz, baina Unibertsitateko ikasleen %60 emakumeak dira, Administrazioako postuetan daude, gizartean paper bat daukate. Bertakoek zioten iraultza bat egitekotan, emakumeek egingo dutela.

- Bertan bizitako anekdotaren bat gogoratzen al duzue?

Virginia- Behin bazkaltzera joan eta ogi zabal eta fin bat jarri ziguten mahai gainean, izara antzekoa, eta hor egon ginen itxoiten, janaria noiz ekarriko zain. Bertakoek aurpegi arraroarekin begiratzen ziguten, barrezka zeuden, eta guk ez genuen deus ulertzen. Azkenean ohartu ginen janaria ogi azpian zegoela!

Beste behin meskita batean txizagura nuen, komunera joan nintzen, baina arabiarrez idatzita zegoenez, nahi gabe mutilen komunera sartu nintzen. Pentsa, bertakoek zein aurpegirekin begiratu zidaten!!

BAM, milaka bizitza eta ondare betiko galdua

Iran bi plaka tektonikoren artean dago, eta munduan lurrikara gehien jasaten dituen herrialdeetako bat da. Azken hogeita bost urteetan ia 1.000 seismo gertatu dira; Bamekoa gertatu aurretik handiena 1990eko ekainean izan zen, 37.000 pertsona baino gehiago hilda utzi zituen.

Iranek azken hamarkadetako lurrikararik latzena jasan zuen joan zen abenduaren 26an. Seismoak 6,3ko indarra izan zuen Richterren eskalan, eta Kerman eskualdeko Bam barrutia astindu zuen, herrialdeko hego-ekialdean. 50.000 pertsona baino gehiago hil ziren, beste horrenbeste zauritu, eta milaka lagun etxerik gabe geratu ziren.

Teheran hiriburutik 1.000 km-ra dagoen Bam hiriko eraikinen %75 guztiz erori ziren. Etxe eta gainerako eraikin gehienak pezo eta adreiluz eginda egoteak asko lagundu zuen lurrikarak hain ondorio zorigaiztokoak izaten.



CAF-ELHUYAR SARIAK

KARMELE & MONTXO LOPEZ DE IPIÑA eta AITZOL EZEIZA




Karmele Fisikan lizentziatua eta Informatika doktorea da. Montxo, Arte Ederretan lizentziatua

ZIENTZIA, EUSKARAZ ETA ERRAZ

Aurtengo Caf-Elhuyar dibulgazio zientifikorako bigarren saria Replikantearen Jazz Arima lanak irabazi du. Karmele Lopez de Ipiña, Aitzol Ezeiza eta Montxo Lopez de Ipiñak konputagailuen adimena eta sentimena garatzeko jarraitzen ari diren bideak aztertu dituzte, eta etorkizunera begira leihatila bat ireki.

Epaimahaiak gaiaren gaurkotasuna, eduki zientifikoaren kalitatea, erabilitako idazkeraren estiloa eta gai gogor eta astun bat era simple eta ulergarrian aurkeztea baloratu du. Karmele eta Montxo neba-arreba gasteiztarrekin solasean izan gara.



-Pozik jasotako sariarekin? Espero al zenuten?

Karmele- Egia esan ez genuen espero. Dibulgazio zientifikorako artikulua bat izan da, baina beste estilo batean planteatuta, alegia, desberdina, dibertigarriagoa, istoriotxoekin, marrazkiekin, txistekin, eta horrelako kontuekin. Gure kezka zen ea jendeak ulertuko zuen horrelako artikulua bat, eta bai, dirudienek asko gustatu zaie, eta bide horretatik aurrera jarraitzeko esan digute.

-Zer da zehazki Replikantearen Jazz Arima-k kontatzen duena?

Karmele- Modu erraz batean esanda, alde batetik, gurekiko eta teknikariekiko kritika bat da: guk adierazi nahi genuena zen makina bat garatzeko beti pentsatzen dugula perfektua izan behar duela, baina teknikoki perfektua. Kasu honetan, ordea, robotika edo erabiltzaile bat badago tartean. Guk ez dugu inoiz kontuan hartzen erabiltzailea aurrean dagoela eta gizatasuna edo antzeko zerbait izan beharko lukeela makinak erosoagoa izateko. Eta alde horretatik adierazi nahi duguna da oso ongi dagoela egiten ari garen guztia, baina zerbait falta dela, arima edo sentimenduak edo zerbait falta dutela.

-Eta zein izan da Montxoren lana artikulua honetan? Zer-nolako marrazkiak egin behar izan dituzu?

Karmele- Pentsatu genuen ea makina bat gai izango zen Montxok egiten duena egiteko, alegia, umorea, txistek... eta erantzuna ezezkoa da.

Montxo- Niri ipuinak pasa zizkidaten, irakurri nituen eta oso politak iruditu zitzaizkidan. Epe bat jarri zidaten marrazkiak egiteko, hilabeteko epea. Marrazkilari baten ikuspuntua eman dut, zientzia kontuetan ezjakin hutsa den pertsona batena.

-Marrazkilari lanetan eskarmentu handia duzu, baina zaila izan zaizu halako lan bat egitea?

Montxo- Ez, ez da zaila izan. Azken finean egunero egiten dudana lanaren antzekoa da, eta gauzei buelta ematean dago gakoa. Zientziarekin gauza bera, gai bat hartu eta buelta ematen diot.

Karmele- Montxok gurekin zenbait lan egin izan ditu. Nire neba delako-edo izango da, baina halako kimika bat dago gure artean, nolabaiteko konplizitatea...

"euskararen presentzia zientzian egotea niretzat ezinbestekoa da"

(karmele lpz. de ipiña)

-Izenburu benetan bitxia jarri diozuen! "Replikantearen jazz arima". Zer esan nahi du?

Karmele- Blade Runner pelikulatik ateratakoa da. Nire ustez orain arte robotikari buruz egin duten pelikula hoberenatarikoa izan da, eta gauza batzuk oso ondo daude azalduta. Batez ere, Harrison Ford protagonista (kar, kar...). Bestetik, replikanteak androide batzuk dira, sentimenduak dituzten robotak daude, onak, maitakorrak eta gaiztoak. Klasiko bat da. Eta jazz arimarena, zergatik? Bada, jazz jotzen duen robot bat agertzen delako, sentimenduak dituena. Guk horrelako replikante bat nahiko genuke.

-Lan hau egiteko denbora asko behar izan duzue? Noiz bururatu zitzaizuen artikulua egitea?

Karmele- Hau aspaldiko ideia da. Duela bi urte saria irabazi genuenean pentsatu genuen aurrera jarraitzea. Azkenean nahiko azkar idatzi genuen, nahiz eta gauza asko sartzeke geratu ziren. Bidali egin genuen, batez ere kroketak jateko, oso onak daudelako, je je... Gainera, duela lau urteko sari banaketan egon nintzen, kasualitatez, eta izugarritzko pena eman zidan lehenengo saria hutsik geratu zelako. Euskaraz dauden sari bakarrak dira eta eman gabe geratu ziren. Sari hori hutsik geratzea niretzat kalte izugarria da, eta orduan pentsatu genuen saria mantentzeko eta maila ona egoteko bidaltzea, eta bestetik artikulua egin genuen guri hori idaztea gustatu egiten zaigulako.

-Nola moldatzen zineten hiruron artean lan egiteko? Elkarrekin koordinatzea erraza izan da?


Karmele- Eztabaidak egon badaude, bakoitzak

bere ikuspuntua duelako. Norberak bere ideiak botatzen ditu, eta behin ideiak izanda batek gorputza idazten du, eta besteari bidaltzen dio. Besteak nahi duena egiten du horrekin, eta berriz itzultzen dio, eta berriz buelta... epea bukatu arte. Batzuetan bukaera naturala dauka, epea bukatu baino lehen. Baina beste batzuetan bukaera epeak berak ematen dio. Epaimahaiak berak esan zigun arraroa zela taldean lan egitea, Euskal Herrian ez baitago ohiturarik taldean lan egiteko. Eta nire ustez askoz aberatsagoa da horrela lan egitea, Montxo egotea, Aitzol... artikulua hau hiru pertsonaren artean atera dugu, baina igual hurrengoan gehiago izan gaitezke.

-Horrelako sariak zer edo zertarako balio dutela uste duzue?

Montxo- Ni Karmele eta Aitzolekin bileretan elkartzen naizenean, pentsatzen dut, *baina hauek zer dira, zientzilaria edo zer demontre?* Burua galduko balute bezala ibiltzen dira, eta niretzat zientzilaria batean hori ikustea nahiko freskoa da. Zientzilarien irudia oso serioa da, baina hauek freskotasun handia dute. Eta epaimahaiak ere freskotasun hori azpimarratu du.

Karmele- Euskararen presentzia zientzian egotea niretzat ezinbestekoa da, eta sari hauek bakarrak dira alor horretan.



Replikantearen Jazz Arimaren atal bat

"Konputagailuak alferrikakoak dira. Erantzunak
besterik ez dizkizute ematen." Pablo Picasso

"2001: Odisea espazioan" film ospetsuan HAL makina adimentsuak jendea zur eta lur utzi zuenetik, interes handia garatu da konputagailuen arazoitzeko eta komunikatzeko ahalmenaren inguruan. Hasiera batetik, ikertzaileak filmean azaltzen diren elkarizketa eta arrazonomenduak lortzearen erronka handiaz ohartu ziren, baina zientziako lorpen gehienek antzera, ez zuten berehala amore eman eta alor ezberdinetan garapena pausoz pauso egiteari ekin zioten, oinarri sendoak lortzeko asmoz eta bidean helburu eta aukera berriak aurkituz. *Adimen Artifiziala* filmetan agertzen diren konputagailuen antzerakoak garatzeko artea dela esan ohi da.

Atea jo dute. Butano-banatzalea da. Larunbatean solasean aritu ginen, benetan atsegin da. Baina zer ari da hemen ordu hauetan? Bonbonarik ez dut behar, egia esan.

- Gabon! Sentitzen dut ordu hauetan etortzea baina...-Arkumetxo begi horiek jarri dizkit...larunbatean giltza ingelesa ahaztu nuen hemen.

Itsumustuan, muxuka sutsu hasi gara. Txunditurik nago gertatzen ari denarekin. Gizon ideala da! Hmmm, hain gozoa...

- Eta hemen duzun orin hau?- galdetu diot, bularrean duen biribiltxo bat laztanduz.

- On/Off botoia da, erantzun dit, irribarre konplize batez.

Oro har, bai zientzialarien artean, bai bestelakoen artean, makinak "gizatasunaren" inguruko eztabaida oso zabaldua dago. Jende gehienak makinak gizakien pareko izatera ez direla helduko uste du, behar hori ez dagoelako ere, baina horien aurrean badira ameslari tematiak horren alde lan egiten. Korrontearen aurka igeri egin arren, alde dute konputagailuen ebolu-zioaren abiadura eta arrakasta. Orain dela urte gutxi, pentsaezina litzateke gaur egun konputagailuek egiten dituzten ataza jakin batzuk egiteko ahalmena izango zutenik.

Honako artikuluan, konputagailuen adimena eta sentimena garatzeko jarraitzen ari diren bideak aztertuko ditugu, etorkizunera begira leihatila bat irekiz. Leihatila honetatik, lagun egingo diguten *robot maitekorrak*, itsuei ikusten lagunduko dieten betaurrekoak eta matematika ariketak gaizki egiten dituzten siliziozko ikasleak ikusiko ditugu.

Konputagailuen garapenaren historiaren hasieratik, makinak hobekuntza helburu izan da, ataza berriak egiteko ahalmen handiagoa izateko. Alan Turing [1] matematikari ingelesa izan zen lehenengoa funtzio anitzeko makinak proposatzen. Funtzio bakoitzerako makina bat garatu ordez, funtzio asko egiteko ahalmena izango zuen makina proposatu zuen. Ideia hau Herbert Simonek (1978ko Nobel Saria) metodologia moduan garatu zuen, egun metodo konbentzionala esaten zaiona.

Metodo hau erabiliz, erabakiak hartzeko erregelak erabiltzen dituzten makinak garatu dira. Erregelak are eta garatuagoak izan, makinak gero eta adituagoak izango dira. Ikuspegi hau erabiltzen da, besteak beste, sistema aditueta eta jokoetan. Makina hauek adimen espezializatua daukate eta aditu baten erabakiak simulatzen saiatzen dira. Adibidez, tenperatura eta presio atmosferikoari buruzko informazioa emanez, eguraldia iragarriko duen makina bat erregelen bitartez egikari daiteke (adibidezko arau bat, "tenperatura 5 gradu baino gutxiago bada, eta hodeitua badago, elurra egingo du."). Ziur aski, makina honek adituek bezainbeste

asmatuko luke, ezer gutxi.

Metodo konbentzionalaren osagarria metodo *konexionista* da. Metodo honek gizakien burmuinaren sare neuronalen egituren funtzionamendua eredutzat erabiltzea proposatzen du. Metodo honekin garatutako makinek testuinguru jakin batean esperientziak lortutako ezagutza erabiltzen dute erabakiak

hartzeko. Metodologia honetan ez dira erabiltzen erregela itxiak; egitura irekia da eta sistemak esperientziak ikasteko gaitasuna du. Makina horiek jasotako *estimuluetatik ikasten* dute eta ikasmen hori etorkizunean erabili dezakete, gizakien kognitibaren antzerako jokaera izanik.

Ikasketa-prozesu honetan, makinek, gizakiok bezala, inguruan agertzen diren datuak jaso behar dituzte, baina gizakien antzera datu horiek prozesatzeko ahalmena izan nahi badute, emozioak garatzeko ahalmena izan beharko lukete. Herbert Simon berak 1967an jadanik nabarmendu zuen pentsamenduaren eta erabaki-hartzearen teoriak emozioak kontuan izan beharko zituztela. Antonio Damasio [2] neurologoak *emozioak* sentitzeko ahalmen fisiologikoa galduta zituzten gaixoei erabaki arrazional penagarriak hartzen zituztela frogatu zuen. Exekutibo erasokor hotzenak ere emozioak erabiltzen ditu bere erabakiak hartzerakoan.

"Adimenaren funtzioetako bat arrazonomenduaz soilik fidatzeak dakarren arriskuaz ohartzea da."

Axel Munthe

Adimen artifizialak eta konputagailuen zientziak orain arte garatu dituen sistema gehienak *arrazonomendu logiko* hutsean oinarrituta daude. Hau bat dator makinak inozoak baina oso azkarak direneko topikoarekin. Erregela jakin batzuekin ondorio logiko bat ondorioztatzen dute. Aldiz, gizakiok, emozioak kontuan hartzen ditugu gure erabaki guztietan, eta komunikazioan ere emozioaren elementu hori kanporatzeko ahalmena dugu.



saioa fdz. de arangiz
argazkiak: edorta sanz



ANTSO JAKITUNA,

EUSKAL KULTURAREN JAUREGIA

Carmen Gomez, zuzendaria


Antso Jakituna Fundazioak Euskal Herriko kultura eta historiarekin zerikusia duten 300.000 dokumentu inguru biltzen ditu Gasteizko Zulueta jauregian, denboraren poderioz, euskal dokumentazioaren fondo aberats eta osatuenetakoa bilakatuz. XV. mende geroztiko dokumentu anitz aurki daitezke bertan, besteak beste, liburuak, eskuizkribuak eta material grafikoa. Egunotan, bere 40. urtemuga ospatzen ari da eta horretarako erakusketa bat antolatu du, Fundazioa hiritarren artean ezagutzera emateko asmoz.

1 955. urtean Gasteizko Aurrezki Kutxa Munizipalak Antso Jakituna erakundea sortu zuen, hasiera bateko xedea dokumentuak argitaratzea eta ekitaldi kulturalak antolatzea izaki. Hamar urte geroago, 1964. urtean, erakundearen Ikaskuntza eta Ikerketa Zentroa eratu zen, arabarren kultur kezka ezberdinak bideratzeko beharrak bultzatuta eta helburu argi batekin, euskal kulturari buruzko dokumentu guztien berreskurapena, zaintza eta hedapena bermatzea, alegia. Aldi berean, aipatutako Zentroaren ekimenez, Euskal Liburutegia sortu zen eta honen oinarria Antonio Odriozolaren liburutegiko euskal fondoaren erosketarekin

osatu zen, batik bat, XVIII. mendetik XX. mendera bitarteko monografiekin. Hemendik abiatuz, egun ezagutzen dugun Fundazioa eratu zen. Carmen Gomez Fundazioko zuzendariak esan bezala, "hasierako helburua aldaezin mantendu da azken 40 urteotan, hau da, Euskal Herriko kulturari buruzko dokumentu guztiak berreskuratzea, betiere kultura hitza zentzu zabalean ulertuz".

Materialaren sailkapena

Gaur egun, 300.000 dokumentu inguru biltzen ditu Fundazioak eta hauek guztiak bi fondo desberdinetan daude sailkatuta, batetik, liburutegiaren



Antso Jakituna-ko langile bi

ZULUETA JAUREGIA

Antso Jakituna Fundazioak Senda ibilbi-dean kokatutako den Zulueta Jauregian du egoitza. 1902. urtean eraikitako etxea neo-errenazimentuko estilokoa da eta Alfredo de Zulueta-aren aginduz altxatu zuen Fausto Iñiguez de Betolaza arkitektoak. Zulueta-aren dirutza Alfredoren aitak bildu zuen, Arabako markesa izandakoak. Antza denez, XIX. mende amaieran Kubako gizonik aberatsena izan zen, batez ere, azukrearen industria eta hau garraiatzeko eraiki zituen trenbideei esker.

materialak eta bestetik, agiritegiaren materialak. Lehenengoan, liburuak, aldizkariak, egunkariak, kartelak, pegatinak edota artikuluek daude; bigarrenean, berriz, familia-agiritegiak.

Liburuen artean gure herriaren memoria osatzen duten dokumentu ugari aurki daitezke, garai eta arlo ezberdinetakoak, adibidez, XV. mendeko eskuizkribuak edota gaur egungo argitalpen berriak. Honela, antzinako liburuei dagokienez, euskal literaturaren klasikoak eta lurralde bakoitzeko legediaren inguruko dokumentuak topa ditzakegu. Horrez gain, XX. eta XXI. mende bitarteko argitalpenak ikusteko aukera ere badago, hala nola, gerra aurreko euskal idazleen lanak, Orixe eta Lizardi kasu, eta egungo Atxaga, Sarrionaindia edo Martinez de Lezea autoreen liburuak. Gainera, sail honetan euskal hizkuntzaren erabilpen

eta ikerketarako beharrezkoak diren tresnak ez dira falta, hiztegiak esaterako. Guztira, 65.000 liburu inguruk osatzen dute liburutegiaren atal hau.

Bestetik, aldizkari eta egunkarien katalogoa eskaintzen dio Fundazioak erabiltzaileari, non 8.400 izenburu baino gehiago kontsultatzeko aukera duen. Bertan, Euskal-Erria, Yakintza eta RIEV bezalako euskal kulturako aldizkari historikoak egoteaz gain, azken urteetan ugaldutako argitalpenak ere aurki daitezke, hauek izenburuen %33 direlarik. Aldizkariekin batera, egunero argitaratzen diren 13 egunkariak eta Euskal Herriari buruz hitz egiten duten aldizkari desberdinetako 100.000 artikuluek osatzen dute Antso Jakituna Fundazioko hemeroteca aberatsa.

Azkenik, nabarmentzekoa da Euskal Liburutegi honek biltzen dituen

mapak eta material grafikoa; hauen artean, kartelak, programa politikoak, panfletoak eta egutegiak aurki daitezke, guztiak oso baliogarriak gure herriaren historia politikoaren berri izateko.

Agiritegiek Fundazioaren beste sail bat osatzen dute, familia- artxiboek, hain zuzen. Atal hau 1993. urtean sortu zen, kontsultatzeko zailak ziren familia-agiritegiak ikertzailearen esku jartzeko asmoz. Modu honetan, egun hainbat familia desberdinen dokumentuak ikusgai daude bertan, hala nola, Saenz de Tejada, Otazu, Larrea edo Barrutia familienak.

Atalekin amaitzeko, argazkiez osatutako Fototeka aipatu beharra dago eta bertan, herri-arkitektura,

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004

Dalvez
argitaratzeak

Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09

dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net

maketazioa

diseinua



ARANBIZKARRA
ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

erregeen bisitaldiak, karlismoa edo herri-lanak irudikatzen dituzten argazkiak topa daitezke, guztira 14.000 inguru.

Dokumentu bitxiak

Hainbeste agirien artean bitxikeriak ere badaude. Carmen Gomez zuzendariaren esanetan, "oso zaila da bat bakarrik nabarmentzea, interesgarriak diren dokumentu asko ditugulako". Alabaina, adibide batzuk jarri ditu: euskaratu zen lehen biblia katolikoa, euskarazko XIX. mendeko errezetak edo Alfaro Fournierrek Gasteiz hiriaren inguruan idatzi zuen 'Una ciudad desencantada' obraren eskuizkribua zein argitaratutako liburua. Dena den, Fundazioko zuzendariak argi eta garbi utzi nahi izan du Fundazioa liburutegi "bizia" dela. Hau da, "ez dira bakarrik iraganeko gauzak gordetzen, memento honetan ekoizten ari diren lanak ere gure apaletan aurki daitezke", dio Carmenek.

Fundazioak pilatzen duen informazio aberats honekin ez da arraroa bertan gauzatutako ikerketak makina bat izatea. Filologia, linguistika eta genealogia dira gehien lantzen diren gaiak, baina arestian ere aipatu legez, bakarra nabarmentzea ezinezkoa dela aitortu du Carmenek. Nolanahi ere, baten bat aipatu egin du: "Santiago De Pablo, EHUKo historia garaikideko katedratikoa, gure materialaz baliatu zen 'El Péndulo patriótico' liburu famatua idazterakoan, eta Gorka Aulestia filologoak ere sarritan erabili ohi du bere ikerketak burutzeko".

Haatik, ikerlari ospetsuez gain, bai unibertsitateko eta batxilergoko ikasleak bai doktoretza-tesiak edota ikerketa partikularrak egiten ari diren pertsonak ere maiz agertzen dira Fundaziotik, bere zuzendariaren hitzetan, "edonori irekita dagoelako".

Fundazioa ezagutzera ematea

Bestetik, ikerlari guztien lana errazteko, 1993. urtean fondoan digitalizazio-proiektua jarri zen abian, Estatu mailan digitalizatu zen lehenengo liburutegi bilakatuz. Zenbait fondotarako sarbidea erraztea eta hauek

ezagutzera ematea ziren lortu beharreko jomugak, baita antzinako dokumentuen kontserbazioa zaintzea ere.

Horrez gain, Fundazioa jendeari ezagutzera emateko asmoari helduz eta bide batez bere 40. urteurrena ospatzeko, egunotan bere historia, jarduera eta fondoan adibide anitz aurkezten dituen erakusketa ikusgai dago Vital Kutxa Fundazioaren Aretoan (hilaren 7ra arte). Zalantzarik gabe, aukera paregabea jauregi honek gordetzen duen altxorren zatitxo bat ikusteko.



GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNEN
ALDIZKARIA

GEU aldizkaria
IZAN ZAITEZ
HARPIDEDUN!!

Tfnoa: 945 22 21 53

geugaste@grn.es

AVNIA, Aiara eskualdea mundura zabaltzen



Avnia aldizkaria Araba eta Bizkaiaren artean hedatzen den Aiara eskualdea ezagutzera emateko sortu zen. Hiruhilabetekari txukuna eta deigarria da, bertako herrien, kulturaren eta historiaren berri ematen duena, alegia. Jadanik, seigarren alea abian dago eta aurreko argitalpenen arrakasta ikusirik, ez da azkena izango.

2002. urtean Luiandoko hiru lagunek euren eskualdearen ondare kulturala hedatzeko beharra ikusi zuten eta horregatik, Avnia Kultura elkarteak sortzea erabaki zuten, honen jarduera nagusia izaera kulturalerako aldizkari bat argitaratzea izanik. "Gure eskualdea beti egon da zeharo baztertuta eta ahaztuta, hori dela eta, gure gauzak kontatzeko aldizkari bat egitea pentsatu genuen", dio Felix Mugurutzak, Avnia aldizkariaren zuzendaritza eta erredakzio batzordeko kideak. Honela, Felixek, Juanjo Hidalgok eta Aitor Aretxagak dirua eta gogo handiak bildu zituzten euren nahia errealitate bilakatzeko. Hasiera batean zehaztutako helburuak bi izan ziren; batetik, Aiara eskualdeko

bizilagunek euren inguruko informazio interesgarriak ezagutzea eta bestetik, kanpokoek ere eskualdearen berri izatea. Aldizkariaren izenari dagokionez, eskualdearekin zerikusia duena aukeratu zuten. Avnia bertako lehen pertsona izena izan zen eta duela 2.000 urteko hilerri batean agertu zen lehen aldiz.

Aldizkariaren mamia

Aldizkariak 2002ko abenduan ikusi zuen argia lehen aldiz eta geroztik, 5 izan dira argitaratu diren aleak, urte-sasoiaren hasierarekin bat eginez. Bertan jorratzen diren informazioak Aiara eskualdearen ingurukoak izan ohi dira, gai desberdinak izaki; etnografia, historia, arkeologia,

gastronomia, natura edo ohitura, esaterako. "Gure aldizkarian beste edonon argitaratzen ez diren gauzak kontatzen dira. Askotan agertzen diren artikulua argitarabeak dira, hortaz, erreferentzia bibliografiko bat ere izan daiteke. Horrez gain, zer edo zer kontatu nahi duenak idazteko leku bat du gure orrialdeetan", adierazi du Felixek. Haatik, hemendik aurrera planteamendu berri bati ekingo diote eta eskualdetik kanpoko informazioak ere ematen hasiko dira. Gauzak horrela, artikulua gehienek Arabako Aiara, Amurrio, Artziniega, Laudio eta Bizkaiko Urduña eta Orozko herriekin zerikusi zuzena duten arren, gainontzeko tokietako artikulua ere argitaratzeko prest daude, betiere gaia interesgarria denean.

Informazio hau guztia atal ezberdinetan banatzen da Avnia aldizkarian. Honela, ale bakoitzean gai orokor bat, artikulua oparoak, eta finkoak diren atalak aurki daitezke, hala nola, errezetak, liburuen gomendioak jasotzen dituen saila eta sendabelarren txokoa. Informazio hau guztia irudizatzeko argazki deigarri ugari jartzen dituzte, kasu gehienetan, Felixek eta Juanjok egindakoak. "Garrantzitsua da aldizkarian argazki eta kolore asko sartzea, gaiak nahiko bereziak direnez, beharrezkoa da nolabait jende guztiarentzat interesgarri bihurtzea", azaldu dute biek. Arrazoi horregatik, aldizkariaren egitura erabakitzerako orduan, kalitatezko argitalpen baten aldeko apustua egin zuten, aldizkari erakargarri eta duin bat lortzeko asmoz.

Kolaboratzaile ospetsuak eta ezezagunak

Bestetik, kalitatea lortzeko xede honetan, kolaboratzaile aditu beharra ikusi zuten. Honela, entzute handiko unibertsitate-irakasle, arkeologo, ikertzaile, etnografo eta izen handiko idazleen laguntza izan dute, adibidez, Enrike Knörr, eta Joseba Eigurenena. Felixen esanetan,



"gero eta gehiago dira gure orrialdeetan idatzi nahi duten pertsona ospetsuak". Nolanahi ere, ezezagunak ez direnek ere bertan idazteko aukera badute. Are gehiago, nahi duenak aunia.org web orrialdean laga dezake bere artikulua.

Hizkuntzari dagokionez, tamalez, ezin izan diote eutsi hasiera batean zehaztutako erronkari. Hau da, euren jomuga artikuluen %20 behintzat euskarazkoa izatea zen, baina denborarekin konturatu dira ezinezkoa dela. "Zoritxarrez, egun ia artikulua guztiak gaztelaraz daude, gai hauei buruz idazten duen jendeak ez duelako euskaraz egiten", argitu du Felixek.

Dena dela, euskara bultzatzeko esfortzua ez dute

bertan behera utzi. Honen adierazle da Euskaltzaindiarekin batera negu honetan argitaratu zuten Euskal Hiztegia (Jose Paulo Ulibarri).

Ezusteak arrakasta

Avnia aldizkariak erdietsitako arrakastak bere arduradunak aho zabalik utzi ditu. Hasierako planteamendua 1.500 ale kaleratzea izan zen, alabaina, 2.500eko tirada egin eta ia guztiak saltzea lortu zuten. Harpidedunekin gauza bera gertatu zen. Felixek esan bezala, "emaitzak harritu gaitu. Uste genuen baino harrera hobe jaso dugu eta leku guztietako harpidedunak dauzkagu, ez bakarrik eskualdekoak, bai eta Euskal Herrikoak eta kanpokoak ere. Guztira, 300 harpidedun baino gehiago".

Udaberrian kaleratuko den aleari dagokionez, Arabako kobazulo artifizialen inguruko artikulua nabarmentzekoa da, artikulua eta ohikoak diren atalekin batera.

Harremanetan jartzeko: 945891976 / www.aunia.org

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Hitza, bihotzaren giltza:
GORA EUSKADI
ASKATUTA!

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna
"EL CLARETE"

Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

EA
eusko
alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI
www.euskoalkartasuna.org

GA
gaste
abertzaleak
www.gasteabertzaleak.com

MIKO
Izozkiak

KIDS

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

edurne begiristain
argazkiak: edorta sanz



FERNANDO VELEZ DE MENDIZABAL, herri-kirolaren arima arabarra

Fernando duela 42 urte jaio zen, eta txikitatik Lopidanan (Araban) bizi da. Nekazaria da egun, eta herri-kirolen munduan aski ezaguna da Araban. Denetariko herri kirolak praktikatzen eta irakasten ditu: lasto altxaketa, Iparraldeko jokoak, trontza, aizkora... Finean "euskal kulturarekin zerikusia duen edozer gauza" du gustuko Fernandok. Euskaraz hitz egiten gehienbat bere kabuz ikasi du. Hogei urteren bueltan AEKn ibili zen, baina denbora gutxi, eta hortik aurrera kalea, koadrila, telebista eta irratia izan dira bere euskara irakasle hoberenak. Denbora gutxi daukala aitortzen digu, baina bere aisialdian antzinako euskara lantzea gustuko duela diosku.



- **Amets bat?** Askok ditut, bat bereziki. Baina ez dut esan nahi, barne-barnekoa delako.

- **Liburu bat?** Ez dut apenas denborarik irakurtzeko. Normalean euskal gramatikaren inguruko liburuak irakurtzen ditut, eleberriak baino gehiago.

- **Kolore bat?** Urdina, baina ez bereziki.

- **Kirol bat?** Herri-kirol guztiak.

- **Janari gustuko bat?** Denak gustatzen zaizkit.

- **Egunkari bat?** Gara eta Arabako Egunkaria.

- **Telebista saio bat?** Eguraldia. Behintzat ez dira saiatzen gezurra esaten, nahiz eta askotan asmatu ez.

- **Gasteizek duen onena?** Alde Zaharra. Eraikin zaharrak asko gustatzen zaizkit.

- **Eta txarrena?** Alkatea.

- **Gasteizen euskaraz bizi al daiteke?** Bai, baina gutxi egiten da. Aukerak egon badaude euskaraz egiteko.

- **Oporrak non eta zertarako?** Edonora joanda ere gustura egoten naiz. Jendearekin egotea, harremanak egitea, munduko edozein lekutako herriko kirolak ezagutzea gustatzen zait.

- **Zure gorputzeko atalik gustukoena?** Ez dit axola horrek.

- **Musikaririk?** Tapia eta Leturia.

- **Lopidanan biziko ez bazina, non?** Euskal Herriko edozein tokitan. Erraz moldatzen naiz.

- **Txikitatik zer izan nahi zenuen?** Nekazaria, aita bezala. Lan desberdinak izan ditut, eta orain, azkenean, nekazaria naiz.

DEPENDENCE IV

Bere amorrazioa arintzeko, kaska!, zartako bat eman zion buruan larrubeltz fidakaitzari. Azkena. Baina Josuk, bere oner etorriko bazen, isiltasuna behar zuen, erabateko isiltasuna. Eta atariko iskanbila hark guztiak kirioak airean jarri zizkion, eta litekeena zen bizilagunen batek deiturik polizia ere etortzea, eta sirena bat ezin izango zuen jasan. Eta Josuk isiltasuna behar zuelako, eskopetaren kanoiak lokira zuzendu zituen, eta hotz zeuden, eta txirraian zihoakion izerdian labaindu zitzaizkion, bizarra egiteko labanaren xafla nola. Baina, halako batean, kanoiak gorputzetik bereizi, eta aterantza zuzendu zituen. Eta Josu, eta au, eta dan, eta Josu, eta dan, eta au, eta dan. Eta dan, eta dan, eta dan.

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE),14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 · 01001 · GASTEIZ

Eta, azkenean, ez Edurneren oihurik, ez txakurraren zaunkarik, ez tabernariaren espanturik.

—Erratza gora, erratza behera, orain kotxeskobak eramango hau infernuko zulora.

Taberna hutsean, edariei josi zien begirada Josuk. Wiskya aukeratu zuen. Botila bat. Muturretik edan zuen, eta alkohola bularraldetik behera isuri zitzaion. Une hartan konturatu zen eskuetan artean zuen dardaraz.

Isiltasuna gozo da. Orduan hasi zuen euri ttikia ere isiltasuna zen. Gozo zen. Eta euriak, isil-isila, gozo-gozo, apur bat garbitu zuen Josu. Baina isiltasunarekin ere, ezin bere onera etorri, ezin kirioak baretu. Aitari ostutako eskopeta Goiko Tabernan utzia zuen. Baina hori gutxienekoa zen. Frogak ezin agerikoagoak ziren. Eta etxera ezin joanik, Barrenkalera jo zuen. Beti igaro izan zen jakinminez handik. Bai kalea zeharkatzen zuenean, bai normalean San Frantzisko aldapatik igotzen zenean. Kale hura beti iruditu izan zitzaion bihozkaletuen eta etsituen babesleku. Artifiziala, okaztagarria, iluna, baina babesleku. Babesleku erlatiboa, Maddik esango zukeenez.


Eta, inon baino hurbilago, inora baino urrunago joan zen. Haragizko uharte batean babestu zen. Galderarik ez han. Musurik ez han. Wisky apur bat. Eta altzo bat. Eta euria begietan. Eta gorputzaren tolesdura eta arteketan. Eta kantu bat. Josurena. Azkenean. Zotinak amaitutakoan.

Maite zaitut, maite, maite.

Ez al duzu aditzen nire aienerik
Mendi garaienaren tontorretik
Etsipenez gainezka amodio eske?

—Ederra, solesote mío —entzun zuen, azkenean.

Eta orduan, kasik trumoi bortitz baten eragin berberarekin, oroitzapen bat. Edurnek kantu bat zuen! Edurnek bere letrarako kantu bat zuen! Beharbada kaset bat ere eramango zuen atearen bestalde hartara, heriotzarenera. Lokietan odola punpaka sentitu zuen berriro. Zarata bere gorputzaren baitan. Eta orduan, oroitzapen hark, kasik trumoi bortitz baten eragin berberarekin, su eman zion bere gorputzari. Wiskyak ezin hil izan zuen sua. Hiltzailea beti itzultzen omen da hilketa tokira.



© patxi zubizarreta & geu aldizkaria

sariu
Zure arrapa eta oinetakoa!
www.sariudenda.com
Kutxillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRA
TABERNA
Eguraldian, azarolametik ostaduan
JANTOKI
BEGETARIANO
SAN FRANTZESKO XABIERKOAREN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL. 945 27 65 33

BEIRATE
ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ
MIKEL
DELIKA

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaituz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

ARABAREN GARRANTZIA EUSKARAREN HISTORIAN:

"LAZARRAGAREN ESKUIZKRIBUA", hegoaldeko euskarazko testu zaharrena



anchinaco liburuetan
çeñetan ditut eçautu
eusquel erriau nola eben
erregue batec pobladu
(fol. 18 vlto.)

LETREN HISTORIAKO ALTXOR BAT

ainara gorostitzu. donostia

2004-02-19. Berria

Juan perez Lazarragak XVI. mendean idatziriko eskuizkribu bat erosi du gipuzkoako foru aldundiak

Borja Aginagalde, Eusko Jaurlaritzako Dokumentu Ondarearen arduraduna, «une egokian toki aproposan» egon izanak mesede handia egingo dio euskal letren historiari. Bai filologia aldetik eta baita literatura aldetik ere. Madrilgo liburutegia batean XVI. mendeko «altxor» bat eskuratu zuen: Juan Perez Lazarragaren eskuizkribua. Dozenaka bertso-lerro jasotzen dituen liburua. «Eskuizkribu hau aspaldidanik ezagutzen dudun antzinako liburuaren saltzaile baten esku zegoen, garrantzi gabeko zenbait agiriren artean», kontatu zuen Aginagaldek, «ziurrenik bizitzan behin bakarrik aurki gaitzek horrelako egoera batean». Orain Gipuzkoako Foru Aldundiak 66.000 eurotan erosi berri du altxor hori, bere benetako balioetik oso behera dagoen prezioan.

Eskuizkribua plegu laurdenean eginga dago. 51 orriz (102 orrialdez) osatua. Lehenengo 4ak ez daude osorik, urratuak izan dira. Esku bakarreko zirriborroa edo lanerako alea dela esan daiteke.

Juan Perez de Lazarragak, Larrea Dorretxeko Jaunak (cr. 1550 – 1605.04.12) euskaraz idatzitako bertso, kanta eta maitasun-kontuen bilduma da. Horiez gain, garai hartan gogoko zuten kontakizun mitologiko luze bat dago.

Testuko hainbat paragrafo aztertu ondoren, badirudi 1564 eta 1567 bitartean idatzitakoak direla, eta egilea Lazarraga dela.

Egilea, jatorriz Oñatiarra den Lazarragatarren leinuko adar ugarietako baten maiorazkoa zen. XV. mendearen bukaeran Arabako lautadan hainbat Jauregi eta Dorretxe eraiki eta bertara bizitzera joandakoen ondorengoetako bat hain zuzen ere.

Orain arte, Juan Perez de Lazarragak berak egindako bere leinuko genealogi zerrenda bati esker izan dugu autore honen berri. Erudizioz jantzitako 1588-89ko testu bikain horren bost kopia ezagutzen ditugu.

2004-02-19. Berria

Eskuizkribua kantitatez eta kalitatez da nabarmendu beharrekoa. Euskal literaturaren historiaren ikerketan zein hizkuntzarenean jauzi bat ekarriko du aurrerantzean. Lehen ikerketak Joseba Lakarra filologoak egin ditu mamiari dagokionean; eta forma aldetik, berriz, Borja Aginagalde berak aztertu du. Datazio zehatzik ez dute zehaztu oraindik ikertzaileek, baina XVI. mendearen bigarren herenean idatzitakoa dela argitu dute. Egiletzari dagokionean, testuan bertan hainbat erreferentzia daude egileza Juan Perez Lazarragari lotzen diotenak. Bosgarren orrialdean, esaterako, XVIII. mendeko esku ezezagun batek «el autor de este libro fue Lazarraga. Juan Perez de Lazarraga dixho el Poeta señor del Palacio de (sic) Torre de Larrea» idatzi zuen.

Balio literario eta filologiko ikaragarria

Garaziko baxenafarreran idatziriko 28 orrialdeak, 1545ean argitaratuak, hots, Bernat Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* da literatur idatziaren lehen euskal ale ezaguna. Amodio poemak dira Etxeparek idatziriko gehienak. Eta bide beretik nahiz eta ezin den esan Perez Lazarragak Etxepareren idazlana ezagutu zuenik idatzi zituen Larreako Dorretzeko jauna zen idazleak bere letrak. 51 orritan horietatik zenbait apurtuta daude amodiozko poema ugari dakartza lerro hautsian. Amodiozko bertsoen artean, maitasunezkoak eta herraz eginikoak irakur daitezke. Ezkerokotxa, Barrundia, Asparrena, Luzuriaga, Langarika eta bestetako emakumeei zuzenduak dira horietako bertso ugari.

Liburuaren bi herenak bertsotan eginak dira baina hasierako zatia bestelako da, artzain-eleberrien tankerako prosa baitakar. Hamaika bertsoz gain abenturazko prosa lan bitxia ere idatzi zituen Perez Lazarragak, Borja Aginagaldek esan zuenez. «Testu honek XVI. mendeko gizartearen inguruan dugun ikuspegia aldaraziko du. Historia sozial eta kulturalako hipotesi asko argitzen eta baieztatzen ditu», azaldu zuen 51 orriak aztertu dituen eruditoak. Hala ere, harribitxi honetan bada idazki erlijiosorik, Jesukristoren azken afariaren inguruan edota Maria Magdalenari buruz. «Harribitxiren bat» gordetzen duen orrialde bakoitzean, azaldu zuen. 1564. urtean Agurainen gertatu zen erreketari ere idatzi zion Perez Lazarragak, eta ahots herrikoia ere jaso zuen, «ytai lelo ybai lelo / echean aray leloa» ezaguna azken orrirako gorde zuen, esaterako. Bitxikerien artean, baita ere, 18. orrialdean eusquel erria agertzea «harrigarritzat» jo du Eusko Jaurlaritzako Dokumentu Ondarearen arduradunak. Perez Lazarragak euskaraz idatzi zituen poemok, nahiz eta gaztelaniaz ezagun diren berak eginiko beste pare bat lan, hala nola, Lazarragatarren genealogia burutu zuen 1589an eta, kronika bat ere idatzi zuen garai bertsuan. Hala ere, izkribuak baditu gaztelaniaz eginiko zenbait bertso eta ohar, orri oinetan. Oñati eta Agurain inguruetakoak ziren Lazarragatarak, eta harribitxi honen egileak Arabako euskara erabili zuen. Orain arte 1562ko Landucciren *Dictionarium*

Linguae Cantabrice eta Portalen 1610eko poesia salbu 1770a arte itxaron behar da Gamizen euskarazko hiruzpalau orrialde poesian aurkitzeko.

Berrogeita hamaika orriko altxorra

Ezaugarri formalei dagokionez, elkarri jositako zenbait koaderno osatutako eskuizkribu honek, indartzeko, pergaminozko azalak zituen erantsirik, garai hartan ohi zen eran, «azal horiek 1586ko Aragoiko dokumentu batenak dira, eta geroztik eskuizkributik askatu egin dira», argitu zuen Aginagaldek. Lehenengo ikerketen arabera, esku bakarrak sortutako zirriborro bat da, zenbait orrialdetan, gainera, zirrimarrak ikus daitezke. Liburuko azken bi orrialdeak, bestalde, beste esku batek idatziak dira, «idazkera benetan modernoagoa du, Pizkunde garaikoa erabat».

Hasieran eta bukaeran hainbat orrialde apurtuta agertzen dira, eta horrek liburu mardulagoa zela pentsatzeko bidea ematen du, adituen arabera. Aurrera begira filologo eta literatur adituen urteetarako lan gaia izango da Lazarragaren testua. Literatur balioen aldetik iturriak, jeneroak eta garaikideak ikertu beharko zaizkio, besteak beste. Hizkuntzaren historian dialektoen bilakabidea edota idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko erlazioen berri eman ahal izango dute azterketek.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskuratu berri duen Lazarragaren eskuizkribuak «geure burua hobeto ezagutzeko aukera emango digu», Joxe Joan Gonzalez Txabarri Ahaldun nagusiaren arabera, eta harribitxia «guztion ondare» izan dadin denon eskura jarri dute Interneten, www.gipuzkoa.net/lazarraga helbidean.

51 orri

Juan Perez Lazarragak XVI. mendean idatzi zituen testuok.

Gaia: Bizpahiru poema erlijioso dauden arren, prosa eta poesia profanoa egin zituen Lazarragak.


Euskara: Arabako euskararen ezaugarriak ditu eskuizkribuak.

Erosketa: Gipuzkoako Foru Aldundiak 66.000 eurotan erosi du, bere balioaren behetik.

- 2004-02-19. Gara. El manuscrito Lazarraga sacude las letras vascas.
- 2004-02-19. Diario Vasco. El manuscrito de Lazarraga revolucionaria la filología vasca
- 2004-02-18. Sustatu. Lazarragaren eskuizkribua: Hegoaldeko euskarazko testu zaharrena aurkezten da gaur.

MAIALEN MONTE LPZ. DE ONDATEGI

"IDAZTEA BEHARREZKOA DUT"



Pianoa, baxua eta gitarra ikasteaz gain, Maialen Monte Lopez de Ondategik idaztea ere badu bere zaletasunen artean gustuko. "Amodio bakartia kontatzen dizut" izenburupean hamasei urteko gasteiztar hau Gauekoak-eko Ipuin Laburren Lehiaketan irabazle suertatu da aurten, 14-18 urte bitartekoaren multzoan; bere familiatz inguratuta baina bakardadean bizi den emakume baten fantasiak eta pentsamenduak plazaratzen ditu ipuin honek.

Gogoratzen al duzu noiz hasi zinen idazten?

Sei urterekin jadanik idazten nuen.

Zergatik pentsatzen duzu hasi zinela idazten?

Gurasoen eraginez izan zela pentsatzen dut. Askotan eraman naute antzerkira eta horretaz gain, ipuinak irakurtzen zizkidaten eta nik adi-adi entzuten nituen.

Gaztelaraz edo euskaraz?

Bietan idazten dut.

Lehiaketa askotara aurkeztu al zara orain arte?

Baten batera baina gutxitara. Hamaika urte nituela behin irabazleen artean geratu nintzen. Orduan gaztelaraz idatzi nuen.

Kasu honetan euskaraz eskuratu duzu saria.

Nik ez nuen espresuki honetarako egin. Udan idatziriko ipuina zen eta gordeta nuen, ondoren lehiaketarako moldatu nuen. Dena den, nik ez dut lehiaketetarako idazten, baizik eta beharrezkoa dudalako, gustatzen zaidalako.

Zerbait prestatzen al zabilta orain?

Ez, atzo azterketak bukatu nituen (otsailean) eta orduan sentitu nuen idazteko premia.

Gaztelaniaz ari naiz oraingo honetan.

Nola ekiten diozu idazteari?

Pertsonaia bat hautatzen dut eta behin daukadala bere larruan sartzea gustatzen zait.

Zein da literatur munduan daukazu xedea edo asmoa?

Nik beharrezkoa dut idaztea, eta horrelako lehiaketetara aurkezteaz baztertzeko ez badut ere, ez daukat nire burua idazletzat. Ez nuen inondik inora irabaztea espero eta ilusio handia egin zidan. Idazten jarraituko dudala argi daukat, beharrezkoa daukadalako, baina idazle ona izateko urteak behar dira...

Beraz, zaila iruditzen zaizu mundu horretan sartzea?

Idazle bat egin behar da eta ez da gauetik egunera egiten. Lehiaketa hori irabazi dudalako ez dut hobeto edo txarrago idatziko, eta badakit idatzitako hau hemendik hilabete batzuetara irakurritz gero akatsak ikusiko dizkiodala. Idazlan bat ez da inoiz bukatzen, beti hobetu daiteke. Hortaz, ez dut literatur munduan nire burua ikusten.

Zer egin zenuen sarian eskuratuko diruarekin?

Oraindik gordeta daukat. Udan gastatzeko asmoa daukat, ingelesez ikasteko bidaia bat egiteko.

DI-DA

- Liburu bat: "Paula", Isabel Allenderena; izugarri gustatu zait.
- Film bat: "La naranja mecánica".
- Idazle bat: Isabel Allende.
- Olerkia eta prosa: Poesia gehiago sentitzeko da eta prosa gehiago bidaiatzeko edo, baina biak ditut gustuko, mementoaren arabera.
- Gai bat: Tristezia. Pertsonaia tristeak aukeratzen ditut eta askotan ere maitasuna dago tartean.



KEPA BLAZQUEZ, “Ametsak amets” ipuinaren egilea

“Ametsak amets” izeneko ipuinak irabazi du aurtengo Gauekoak-eko Ipuin Laburren lehiaketa, 19-25 urte bitartekoen multzoan. Hemeretzi urteko zara zuzenak amets erotikoa bat oinarri errealtatea gainditzen du bere idazlanean. Idazteaz gain, Kepa Blazquezek hizkuntza, dantza eta musika ditu gustuko. Euskal dantzetan eta Zarauzko Musika bandan ibilitakoak egun itzulpengintza ikasten du Gasteizen.

Zenbat urte zenituela hasi zinen idazten?

Ipuinak idaztera eskolan sustatu egin gintuzten. Izan ere, Zarautz mailako lehiaketan idaztera derrigortzen gintuzten. Euskarako klaseetan idazlana idatzi behar genuen eta. Oraingo honetan aldiz, unibertsitatean nagoela idatzi nuen, ondoren moldatu eta lehiaketara aurkeztu nuen.

Zerk bultzatuta idazten duzu?

Espresatzeko bide bat delako agian, dantza eta musika adierazteko beste bide batzuk diren bezala.

Orain zerbait prestatzen diharduzu?

Egia esateko ez dut mementoz ezer planteatu. ‘Bajoiaz’ nagoela idazten dut, unearen arabera... akaso bihar kaskoan sartu eta idazten dut.

Beraz, beheraldia, bajoia behar duzu izan idazteko?

Bajoia eta denbora, biak.

Literatura munduan gora egiteko aukera aztertu duzu?

Itzulpengintza ikasten ari naiz, eta akaso hortik antzematen dut bidea. Hau da, itzulpen literarioak egiten. Itzulpenak eta literatura nolabait lotuta edozein hizkuntzatatik euskarara gustatuko

litzaideke itzulpenak egitea, euskara ama-hizkuntza baitut. Gaztelaz irakurri ohi dut, baina espresatzeko euskara behar dut.

Nola baloratzen duzu agur egungo euskarazko literatura?

Euskarazko literaturan euskarara itzultako best-seller horietakoak botatzen ditut faltan.

Zer egin duzu sariarekin?

Ostiral batean jaso eta larunbatean hasi ziren beherapenak, segituan gastatu nuen dena.

DI-DA

- **Liburu bat:** Ken Follet-en “Los pilares de la tierra” eta Daniel Steel-en edozein.
- **Orain irakurtzen ari zaren liburua:** Daniel Steel-en beste bat, “erromantiko-arrosa” itzel horietakoa naiz eta (barre egiten du).
- **Film bat:** Roberto Penniniren, “La vida es bella”
- **Prosa edo poesia:** Prosa nahiago, poesia irakurtzeko gustatzen zait baina idazteko prosa.
- **Gai bat:** Barnean daukazu bat, barnean daukazuna.

Naturaren isladak



IÑAKI ZORRAKINen OMENEZ

(Geu aldizkariko kolaboratzailea urtetan, Naturaren Isladak atalean)

Iñaki joan zaigu, baina ez ordea berak emandako guztia... Malkorik malko, eta zuk utzitako hutsunetik, agur esaten dizugu bihotz-bihotzetik, betiere gogoan izango ditugula zurekin izandako denetiko elkarrizketak, botatako barreak, partekatutako iritziak, naturarekiko maitasuna... eta komunikazioz beteriko zure irudiak... Artista paregabea izan zara!!! Hori beti esaten genizun! Euskaltasunean eta laguntasunean murgilduta joan zara, baina gure oroimenean beti eramango ditugu zure irribarrea, zure barre berezia, alaitasuna eta bizitzeko gogoia.

Zuretzat, Iñaki, ale hau Geu aldizkariko taldearen partez.

EZ ADIORIK, IÑAKI!

gure doluminik zinezkoenak sendiari



testua eta argazkiak: xabier errasti, 'jerras'

itzulpena: geu

Itzultzeko denbora izango dut, hegazkin txartela lagun mexikarren etxean utzi dut, baina ilbehera hastea behar nuen, nire gorputza lasaitzen hastea eta izaera ez hain basatia izatea. Horretarako zer hobeto Veracruzeko Jaialdi Afro-Karibetarra baino, D.F.-tik 5 ordura besterik ez, Mexikoko Golkoan.

Portuan eman nuen astebete erabat lasaia izan ez bazen ere, bertako erritmoak ez zuen zerikusirik hiriburu handikoarekin; egia esan, Veracruzek kutsu kubatarra dauka. Hemen Karibe Handia sentitzen da, hirugarren sustraiaz ere mintzo dira, musikan eta bereziki aurpegietan eta jendearen kolorean antzematen den sustrai beltza.

Veracruz Mexikoko karga-portu handiena da. Munduko edozein tokitatik etorritako ontziak bertan lehorreraten dira, Malekoiairen ondoan. Koralezko hesi batek eta Uluako San Juanen gotorlekuak babestuta, desberdin egiten duen zapore bat dauka bere baitan.

Bertan ikuskizun garrantzitsuenak barne hartuko dituen eszenatokia kokatuko da, nahiz eta zokaloak eta plaza txikiak ere erabili ohi diren herritarrak jaialdiak irauten

duen hamar egunetan musikaz goza daitezen. Egitaraua antzerkiarekin, hitzaldiekin, dantza eta perkusio tailerrekin, eta dokumentalekin osatzen da; guzti-guztiekin estatuak bizi duen errealitate afro-karibetarrari aipamen egiten diote.

Jaialdian Karibe Handia osatzen duten herrialdeetako kultur ordezkariak parte hartzen dute, Belize, Haitik, Jamaikak eta Kubak, bai eta Cabo Verde edota Nigeriako artista afrikarrek ere; era berean, Veracruzeko talde eta elkarten partehartze zabala eta gainontzeko herrialdeko artista ospetsuak ere badira. "El Cigala"-k Lágrimas Negras bertso flamenkoan negar egiten zuen bitartean, ontzi handi bat lehorreratzeko ari zen, itsasora irekitako eszenatokiaren atzealdetik.

Gauak luzeak dira, izerdia azalera itsatsi egiten da. Sonez, 'ranchera'z eta guaguankoz blai, prostitutek eta trabestiek espaloian itxopen dute. Gatza, garagardoa eta limoia; rokola hango kantinan entzuten da, non mozkortiek tekila merkea duen pixa egiten duten, eta emakume lodi, iheskorrak eta ukitutakoak musukatzen dituzten, azken zurrut baten trukean.

Zokaloan, eguerdiko argia gogorra eta horia da. Plaza beti dago animatua; puruak saltzen dituzten saltzaileak, artisau-lanak eta janari minak kaleko musikariekin eta marinba bandekin nahasten dira. Eliza, Udaletxea eta musika-kioskoa, zuhaitz eta palmondo handiekin batera bizi dira.

Malekoirako bidean, buenosairestarren eta turisten aisialdirako beste gunean, trafikoa handia da eta autobus zaharrek botatzen duten kea trinkoa da.

"Échele la moneda güero!"

"Clavados" deritzenak dira, turistek botatako pesoak (txanponak) hartzeko lehian aritu eta ondoren ahotan gordetzeko kaiko uretan murgiltzen diren haurrak eta gazteak dira. Horixe da Veracruzeko portuak bisitariei eskaintzen dien "ikuskizun" handienetariko bat. (Lan bitxia).

Jaialdia bukatu eta biharamunean joatea erabaki nuen. Hurrengo helmuga argi neukan: Tlacotalpan, oraingoan bai, oraingoan lasaitasuna topatuko nuen herri txikia, gau-bizitza gutxi eta iluntzean tximeleten ibai gainetik hegan egiten duten txorien musika duena.

Bertakoari so!



ERLANTZ

URTASUNen txokoa

Gasteizko nafarren lege zaharraz

Aurrekoan adierazi genuenez, eta hainbatetan bertzelakorik zabaldu bada ere, 1200. urtean Arabak ez zuen bat egin Gaztelarekin. Egunditzen ohi dugun "Araba" Nafarroaren baitan zegoen antolaturik, eta bere lurrak, ibarrak, lautadak, mendialdeak nafar eskualde batzuk ziren. Aipatu urte inguruan, halere, gaztelarrek militarki inbaditu zituzten nafar lurralde hauek, arabarron gogoa bortxaz menperatuz.

Zergatik eutsi nahi zioten gure arbasoek nafar izateari? Antso V1a Jakituna erregeak (1128-1194) emaniko Gasteizko foruan, lege zaharrean, ihardespena dugu, apika. Izan ere, honela diote Tomas Urzainki historialariak latinetik gaztelaniaratu isuririko pasarte batzuek: "que los Clérigos e Infanzones que en vuestro pueblo os placere recibir, no tengan en la misma población casas más libres que las vuestras. Y en todo vuestro común negocio paguen como vosotros [...] el Obispo no reciba más que la cuarta parte de los diezmos [...] el señor que tuviere esa villa por el Rey, nunca por ningún motivo haga fuerza, no ponga sobre vosotros Merino extranjero, ni Sayon, salvo aquel a quien tuviéreis por vecino. Si su Merino entrare por fuerza en vuestras casas, y de ellas por fuerza sacare alguna cosa, y allí fuere muerto, no paguéis por ello su muerte [...] Tened siempre Alcalde al que nombréis de entre vuestros vecinos. Si no fuera bueno y fiel, cambiadlo cuando queráis".

Antso V1a Jakitunak bizitza osoa eman zuen gaztelarren aurkako guduuan, arma edota legeen bitartez. Aita Sainduak eskumikaturik zegoen. Hil ondoren gaztelarrek Araba konkistatu zuten. Gasteiztarrek, goseak hilak ere, urtebetez erresistitu zuten.

GAMARRAKO OSTALARITZA ESKOLA

PIKILLOAK ANT XO EKIN ETA FOIE-KANELOIAREKIN



PLATERAREN PRESTAKETA:

- Jarri foie-kaneloi bat plateraren erdian eta sifoiaren aparrarekin bete. Platera apaintzeko, antxoien izozkiaren koilarakada bat eta piper-gelatinaren dado batzuk jarri; bestalde, pikilloaren purea apur bat eta perrexil-olio berde apur bat ere gehitu, esne-kurruskaria gaineratu eta pikilloaren hauts apur bat bota gainetik guztiari.

PROZEDURA

• **Pikilloen esne kurruskaria egiteko**

- 1 l esne
- 3 pikillo piper erreta eta zurituta
- Ketutako gatz apur bat
- ✓ Esnea, pikillo piperrak eta ketutako gatz sutan jarri. Iragazi eta plantzan egin, gorritu arte. Lehortzen utzi eta gorde.

• **Pikillo piperrren hautsa egiteko**

- 125 g pikillo piper
- ✓ Piperrak labean lehortu 100°C-tara ordu betez. Txikitu eta iragazi, hauts fin eta lehorra lortu arte.

• **Antxoien izozkia egiteko**

- 500 g esne oso.
- 500 g esnegain (% 35eko MG)
- 100 g azukre
- 50 g glukosa
- 50 g azukre aberastu
- 300 g antxoa gazitu oliba oliotan (xukatuta)
- ✓ Esnea, esnegaina, azukre-aleak eta azukre aberastua eta glukosa pasteurizatu. Lehenago txikitu eta iragazitako antxoekin nahastu. Izoziak egiteko makinan mantekatu.

• **Pikilloen aparra egiteko**

- 3 tipula
- 15 g agar-agar
- 4 arrautza-zuringo
- 2 baratxuri-ale
- 500 g pikillo piper
- ✓ Tipula baratxuriekin batera gorritu, piperrak gehitu eta 45 minutuz su txikian

egiten utzi. Gatza bota, txikitu eta iragazi. Epeldutakoan, arrautza-zuringoak eta agar-agarra bota. Sifoiaren sartu, sifoiaren ur-bainuan berotu eta 45-50°C-tan mantendu plateraren aurkeztu arte.

• **Foie-kaneloia egiteko**

- Ahate-gibela
- Gatza eta piper beltza
- ✓ Gibela ondo garbitu, zainak kendu eta gatzarekin eta piper beltzarekin gozatu. Thermomixean sartu eta 4. abiaduran txikitu, 35°C-tan 2 minutuz. Orea shill-pack zati laukizuzenen gainean zabaldu, bildu eta abadidorean sartu. Shill-packa atera eta egindako kaneloia gorde.

• **Pikilloaren gelatina egiteko**

- Pikillo piperrak
- Tipulin freskoak
- Baratxuri, gatz eta oliba-olio apur bat
- Arrain-buztanak
- ✓ Tipulina eta baratxuriak su txikian egin. Pikillo piperrak bota eta ardo zuri apur batekin egosten utzi 20 minutu inguru. Txikitu, iragazi, harrotu, gozatu eta krema iragazi. Hozten utzi eta dado txikietan zatitu. Gorde.

• **Pikilloaren purea egiteko**

- 125 g pikillo
- Baratxuria, gatza eta oliba-olio birjina
- Piperrak baratxuri eta gatz apur batekin gorritu su txikian. Txikitu eta iragazi.

(itzulpene: aztiri)

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Zure denda erotikoa

SEX



Sexua
euskaraz
bizi



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobil: 639 81 51 30

IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ehunak
eskuz margotuak"
- ZAPIAK -

Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa: 945 13 33 59



Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnok: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

XIXILU JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ


BUZTINTZA

KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo
teknologiak bakarrik berma dezakete
ongi egindako lana. Zerbitzu osoa,
norberaren neurrira, hurbila eta saiaturia.

Horixe duzu gure
konpromisoa.



MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

AITORMENA: BERNARDO ATXAGA & GARI

MARTXOAK 5. PRINCIPAL ANTZOKIAN

Geu Elkartea-k Gauekoak-ekin elkarlanean, ikuskizun berri bat antolatu du martxorako. Euskarazko ikuskizun eta ekintzen eskaerari erantzunez eta gure hiriko hainbat toki eta esparru ezberdinetara heldu nahian, oraingo honetan **Principal antzokian martxoaren 5erako** 20.30etatik aurrera emanaldi berezia prestatu dugu. Berezia, Gasteizen estreinatuko den ikuskizun hau zuentzat eta kasu honetarako espresuki prestatua izan delako, hain zuzen. **"Aitormena"** izenekoak hitza eta testua ditu nagusi. **Bernardo Atxagaren** eta **Jose Manuel Goikoetxearen** eleak, eta **Gari** eta **Nando de la Casa** ren musika izango dira protagonistak.

GAUEKOAK GEU ELKARTEaren eskutik aurkezten du:

"AITORMENA" Bernardo Atxaga

+ lankidetzak bereziak/
colaboraciones especiales

Martxoak 5 ostirala
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA
20:30

Prezioa: 12/9/6 euro
50%eko beherapena 30 urtetik beherakoentzat

IZENEMATE BIDEZKO IKASTAROA / TALLERES CON INSCRIPCIÓN 22.000.00

Sarrerak:

Principal-eko leihatilan 12, 9, 6 euroan (prezio erdian 30 urte beherakoentzat). **ESKAITZA BEREZIA: *GEUko BAZKIDE edo HARPIDEDUN bazara, PREZIO ERDIAN**, 30 urte baino gehiago baldin badituzu ere (bina sarrera). Nola? Geu Elkartera deituta 945222153. Egizu zure erreserba lehenbailehen, martxoaren 4ra bitartera (sarreraren kopurua mugatua da).

KULTUR ERROTA

Gabonen bueltan **TXUKALDA** izeneko disko berria grabatu berri du **Andoni Tolosak (Morau)** aspalditik dabilen taldearekin. Grabazioa otsailean kaleratu da eta **MORAU TA AGOTAK** izenpean defendatuko dute zuzenean. Badakizue beraz: Morau-k disko berria atera du eta zuek nahi baduzue ikus eta entzuteko aukera izango duzue!

MARTXOAREN 30ean, ASTEARTEA,
20.30etatik aurrera PARRALEN

Geu Elkarreak antolatzen duen kultur-erota ekimenaren barnean.

*Ikusiko
garelakoan,
lagun!*





HITZALDI SORTA-2004

(ikus. kontrazala)

GEU ALDIZKARIA eta
GEU ELKARTEAREN ekimenez,
NABARRALDEekin elkarlanean

GEU ALDIZKARIA-GEU ELKARTEA & NABARRALDE ekimenaren eskutik



HITZALDIK-2004

TOPIA: MONTEHERMOSO KULTURUNA - AMBIGU ARETOAN
(Jardun de Palmera kulturearen ondorengoa)

ORDUA: 20.00etan

MARTXOAK 24, ASTEAREN
NABARRALDEen aurkezpena: **ERLANTZ URTASUN** historiagilearen eskutik: **GEU** liburua, azalpena, jakintza eta komunikazioa. Euskal Herria, kontzeptu kulturala; Nafarroa, Euskal Estatuak.

APRILAK 20, ASTEARTEA
HITZALDI MULTIMEDIA: **AITOR ARANA** itatzailea (2003ko Gasteizko saria), **"EUSKAL HERRIA, IRAGANA ETA GEROA"** (anturupen).

MAIATZAK 19, ASTEAREN
HITZALDI MULTIMEDIA: **ABIZENEN ESANAHIA**, MIKEL BELASKO.

URRIAK 20, ASTEAREN
HITZALDI MULTIMEDIA: **EUSKAL ESTATUAREN SORRERA**, ERLANTZ URTASUN.

AZAROAK 17, ASTEAREN
HITZALDI MULTIMEDIA:
1000. URTEKO EUSKALDUNAK. ERLANTZ URTASUN.

ABENDUAK 14, ASTEARTEA
HERRI KIROLA 6: SOLASALDIA:
IRAKI PERURENA: "SO ALTZALDI, 50 GALDERA".

www.nabarralde.com / info@nabarralde.com

Martxoaren 31a, asteazkena

Isaac Bashevis Singer, Zortzi kontakizun, Elkar-Alberdania 2002.

- Apirilaren 21a, asteazkena
Jokin Muñoz, Joan zaretenean, Alberdania 1997.
- Maiatzaren 26a, asteazkena
Bernardo Atxaga, Soinujolearen semea, Pamiela 2003.
- Ekainaren 30a, asteazkena
Arantza Iturbe, Lehenago zen berandu, Alberdania 1995.



GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA

Geu elkartearen ekimenez

HIKAATENEO-N ARRATSALDEKO
20.00ETAN

GEUREKIN MENDIRA

MARTXOAREN 21ean

ENTZIAN, MURUBE (1128 m.)

ARDURADUNA: MAITE (945282316)

IRTEERA: LOVAINA PLAZAN, goizeko 9.00ETAN



GEU ALDIZKARIKO HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA

- MARTXOTIK APIRILERA BITARTERA 2004ko **HARPIDETZA KUOTAREN KOBRAKETARI EKINGO** DIOGU. AURTENGO KUOTA, IAZ BEZALA, **18 EUROKOA** DA.
- ZUEN KONTU-ZENBAKIETAN **ALDAKETARIK** EGONEZ GERO, ESKERTUKO GENIZUEKE **JAKINARAZIKO** BAZENIGUTE.

MILA ESKER GUREKIN IZATEAGATIK,
FUNTSEZKOAK ZARETE-ETA!

geugaste@grn.es





ESPASOLA





HITZALDIAK-2004

TOKIA: MONTEHERMOSO KULTURUNEAn - AMBIGU ARETOAn

(Jardin de Falerina kafetegiaren ondokoa)

ORDUA: 20.00etan

MARTXOAK 24, ASTEAZKENA

NABARRALDEren aurkezpena, **ERLANTZ URTASUN** historiagilearen eskutik (Kultura, ezagupena, jakintza eta komunikazioa. Euskal Herria, kontzeptu kulturala; Nafarroa, Euskal Estatua).

APIRILAK 20, ASTEARTEA

HITZALDI MULTIMEDIA: **AITOR ARANA** idazlea (2003ko Gasteizko saria), **"EUSKAL HERRIA, IRAGANA ETA GEROA"** izenburupean.

MAIATZAK 19, ASTEAZKENA

HITZALDI MULTIMEDIA: **ABIZENEN ESANAHIA. MIKEL BELASKO.**

URRIAK 20, ASTEAZKENA

HITZALDI MULTIMEDIA: **EUSKAL ESTATUAREN SORRERA. ERLANTZ URTASUN.**

AZAROAK 17, ASTEAZKENA

HITZALDI MULTIMEDIA:

1000. URTEKO EUSKALDUNAK. ERLANTZ URTASUN.

ABENDUAK 14, ASTEARTEA

HERRI KIROLA & SOLASALDIA:

IÑAKI PERURENA: "50 ALTXALDI, 50 GALDERA".